

"MODISTAE"-ENGANDIK PORT-ROYAL-ERA

Epistemologia kartesiarra: ikuspen linguistiko berri baterako galbahea

Isidro Yoldi Iturbe

"N. Chomsky-ren "Cartesian Linguistic" liburua irakurtzen denean, Descartes-en epistemologiak Linguistikaren ibilbidean eragin erabakikorra izan zueneko susmoa izaten da. Susmo hori zertan gauzatzen den aztertzerakoan, Gramatika Espekulatiboaren bilakaera ikertu behar izaten dugu.

Port-Royal-eko Abadian idatzitako Gramatikak unibertala izan nahi du adimenaren printzipio logikoetan oinarritzen bait da. Baina, joan gaitezen Descartes-en aurreko gramatikariengana. XIVgarren mendeko "modistae"-en esanetan, Hizkuntza errealtatearen existentzia modu desberdinak errepresentatzeko adierazpen modu desberdinez hornitzen da, errealtatea abiagunez delarik.

Bi sistema hauen arteko garapenean, Descartes-en epistemologia izan daiteke hasieran somatzen genuen galbahea."

Sarrera

Descartes-en ezagutzaren teoriak Linguistikaren garapenean zer eragin izan duen zehaztea da lan honen helburua. Honetarako, bi erreferentzi puntu hartuko ditugu: alde batetik, gramatikalari modistak; eta, bestaldetik, Port-Royaleko abadian idatzitako *Grammaire générale et raisonnée* izeneko liburua. Beraz, honako hau lan diakronikoa dugu, bere interes-gunea epistemologia kartesiarra delarik.

Hala ere, garai horretan Linguistika, Filosofia eta Psikologia orain bezain banandurik ez zeudela gogoraraztea komeni da. Irakurketa azkar batek bere oinarrietan kontzeptio filosofiko desberdinak dituzten elementuen elkarlotze ebidentea eragin dezake. Eta alderantziz ere bai. Horrexegatik esan da, garai honetan, gai berriak aztertzen direla, terminologia klasikoa erabiliz; hau da, hizkera filosofiko eskolastikoaz estaltzen direla aztergai berriak.

Garai honetako autore adierazgarrienek azaldutako ezagutzaren teorietatik abiatuko gara. Gero, kontzeptu hauek zuten berezko esanahia azaltzen saiatuko gara, beren inguru filosofikoaren barnean ulertuz. Modu honetan, ezagutzaren teoria hauek, beraiek eragindako teoria linguistikoekin erlazionatu nahi ditugu.

Aipatu bezala, ikerketa honen epizentroa Descartes-en epistemologia izatea da gure asmoa. Eta metodoari jarraiki, fenomenoaren ezaugarri

guztiak analizatuko ditugu, ondoren gradualki berrosatzeko, abiapuntua hipotesis bat delarik: bere epistemologiak ideia linguistikoetan duen izaera erabakiorra alegia.

Lehenengo aztergaia gramatikalari modistak izango dira, gramatika espekulatiboaren ordezkari direnak. Beraien epistemologian metafisika (modi essendi), logika (modi intelligendi) eta hizkuntza (modi significandi) biltzen dira. Modisten aintzindaria Pedro de Helia dugu; autore honek Aristotelaren *Categoriae* eta *De interpretatione* liburuen irakurketa berria egiten du, elementu gramatikalak eta logikoak batuz.

Aurrerago, Sanchez de las Brozas-ek, "El Brocense" ezizenez ezagunak, idatzitako *Minerva* liburuak eskaini digu Errenazimentuak Linguistikan suposatu zuenaren adibidea. Izan ere, XVI. mendean, filosofiak bideratzen du ikerketa linguistikoa nabarmenki; batasun filosofikoaren hausturak eta Eskolastikaren agorpenak eragingo dute munduaren "babelizazioa" eta batasun linguistikoaren galera, zientifikotasuna arriskuan jarriz. Honen ondorioz sortutako eszeptizismo epistemologikoak eszeptizismo linguistikoa bultzatuko du.

Eszeptizismo honen aurka joko du filosofia kartesiarrak XVII. mendean. Metodoaren bidez, Descartes-ek ezagutzaren ziurtasuna aurkitu nahi du, pentsatzean aurkituko duelarik. Razionalismo subjektibo honen ardatzak sinbolismo matematikoa eta arrazoa dira; hauek erabiliz, hedadura eta izpirituaren munduak bereizten

zituen bikoiztasunaren agorpena Jainkoaren substantzia absolutuan aurkituko du. Kartesiar batek, Cordemoy-k alegia, arima eta gorputzaren arteko bikoiztasun honetan zeinua eta adieraziaren arteko erlazioaren islada ikusi du. Baina, ez gaitezen azkarregi joan.

Logika eta ezagutza matematikoaren gorespen-joera honetan sartzen da Port-Royal-eko obra. Punto honetara iritsiak garelarik, atzera begira dezakegu korronte hau modistenarekin konparatzeko, epistemologia kartesiarraren galbahea erabiliz.

Halaber, linguistika razionalista (Port-Royal, Cordemoy, Condillac... etabar leudeke sailkapen honetan) linguistika enpiristarekin batera aztertzen saiatuko gara. Bien arteko desberdintasuna ez litzatekeela printzipioena izango, metodoena baizik ikusiko dugu.

Azkenik, aurreko guztia kontutan harturik, hain eztabaidatua izan den "Linguistika kartesiarra" kontzeptua aztertuko dugu, eta sailkapen horren barruan zer izan daitekeen, nola ulertu behar den, eta zer gramatikalari sartuko ziren azalduko dugu.

Kontziente gara lan honen zabaleraz, baina, honen bidez, gai honi lehenengo hurbilpen bat egin nahi izan diogu, sakabanatuta eta nahasia dagoen materiala bildu nahiaz.

**Pentsamenduaren
analizagarritasuna eta hizkuntza
unibertsala, gramatika
espekulatiboaren kezka**

1746an Etienne Bonnot de Condillac-ek *Essai sur l'origine des connoissances humaines* izeneko liburuaren hizkuntzaren azterketari emandako bigarren atalaren hasieran honela zioen: "Gramatika pentsatzearen artearen lehengo partea kontsideratzen dut. Hizkuntzaren printzipioak aurkitzeko, nola pentsatzen dugun aztertu behar dugu; printzipio hauek pentsamenduaren analisisan bertan bilatu behar dira. Baina, pentsamenduaren analisisa osorik egina dago jadanik diskurtsoan".

XVIII. mendeko hizkuntzalari frantses honen testua irakurrita, badirudi pentsamendutik abiatu nahi duela hizkuntzara iristearren; baina, segituan esaten digu pentsamenduaren analisisa osorik egina dagoela diskurtsoan, hizkuntzak pentsamendua aztertzeko metodo analitikoak iruditzen zaizkiolarik. Hortaz, lehenengo proiektuari buelta ematen dio eta hizkuntzatik abiatuko da orain pentsamendura iristeko. Condillac ezbaian dago; ulergarria da. Anbiguotasun hau hizkuntzaren berezko ezaugarria da. Hizkuntzaren izaera bikoitza elkarren beharrean dauden bi osagaik osatzen dute: pentsamenduak eta honen adierazlea den diskurtsoak. Eta ezin izango dugu bat aztertu bestea bazterrean utzirik.

Hau dela eta, Condillac-ek ez daki nondik abiatu bere ikerketari ekiteko. Eta honexegatik ere, gramatika oro filosofia da, filosofia orok hizkuntzaren nolabaiteko analisia eskatzen duen modu berean.

Condillac-ek gramatika arte bezala kontsideratzen du, baina ez hitz egitearena, pentsatzearena baizik. Burutu nahi duen hizkuntzaren analisia pentsamenduaren analisia izango da, zalantzarik gabe; baina analisi honek alde zuzenetik pentsamendua analizagarria dela suposatzen du, hau da, atalez osatua dela. Aurreuposatzen du, baita ere, pentsamenduaren analisisan azaltzen diren atalak diskurtsoaren osagai direla. Ondorioz, analisi honek gramatika orokorra sortaraziko du, giza hizkuntzaren nolabaiteko gramatika izango dena. Analizatzea segidan eta ordenan behatzea izanik, lehenengo ea pentsamenduan segidarik dagoen jakin beharko genuke. Pentsamenduan segida badagoela eta analisiak momentu hauek jaso eta imitatzen dituela, edo momentu hauek aldibereko pentsamenduan analisiak berak sartuak direla onar dezakegu. Baina, pentsamendua aldiberekoa bada, analititik lortutakoa ez da berez pentsamendua. Condillac-ek lehengo zentzuan ulertuko du analisia.

Pentsamenduaren zatigarritasuna hartuko du Condillac-ek aztergai. Hizkuntzak ez dira bakarrik, ezta nagusiki ere, pentsamenduaren adierazpide. Hizkuntzak, batez ere, metodo analitikoak dira, hau da, hasiera batean nahasia den pentsamendua, berezia izateko gizakiak

eskuratzen dituen tresnak. "Hizkuntzaren lehenengo eginbeharra pentsamendua analizatzea da, beraz", dio Condillac-ek. Gure gogoan batera ematen diren ideiak beste pertsoneri erakutsi ahal izateko, lehendabizi geure buruari segidan, bata bestearen atzetik, erakusten saiatu behar dugu: "besteei hitz egiten dakigu, geure buruari hitzegiten dakigun heinean, soilik". Hortaz, pentsamenduaren analisia dugu abiapuntu.

Baina, euts diezaiogun arazoari beste ikuspuntu batetik. Orohar, pentsamendua zatiezina kontsideratzen da. Nola, bada, hitz bananduen multzo batek adieraz dezake pentsamendu bat? Kezka hau gramatika orokor edo espekulatiboan abiapuntuetan datza. Eta gramatika hauek ematen duten erantzuna hau da: badago pentsamendua analizatzeko modu bat, pentsamendua zatitzen badu ere, bere osotasuna errespetatzen duena: logikak egindakoa, alegia. Hizkuntzak utziko digu pentsamenduaren zatiezintasuna gaitzen baldin eta hitzen bidez egindako zatiketak pentsamenduaren analisi logikoa isladatzen badu. Beraz, logikak eskaintzen digu pentsamendua analizatzeko giltza.

Ikusten dugu, bada, Condillac-en lana tradizio luze baten ondorengoa dela. Tradizio hau Port-Royal-eko gramatikariengan aurki daiteke, baina, atzerago begira, goian aipatutako gramatika espekulatiboaren Erdi Aroko sortzaileenganaino garamatza. Hauexek izan daitezke lan honen bi muturrak. Batetik bestera daraman "ibaiaren" ur-emaileak zeintzuk izan diren azaltzen saiatuko gara,

"korronte" nagusia galdu gabe. Salvio Turro-k *Descartes: del hermetismo a la nueva ciencia* izeneko liburuan gure asmo bera jasotzen du: "Entre los siglos XIV y XVII, que se encuadran en su mayor parte bajo el aristotelismo y bajo la nueva ciencia respectivamente, media un intervalo de más de dos siglos que no puede de modo alguno adicionarse a ninguno de los dos paradigmas limítrofes. El aristotelismo cayó mucho antes de lo que acostumbra a consignar la historiografía tradicional y, a su vez, la ciencia moderna no se enfrentó directamente con tal aristotelismo, pues su vigencia había caducado hacía ya tiempo"

Gramatika espekulatiboaren lehen urratsak: Grezia eta Erromatik datorrena

Bai Grezian baita Erroman ere, hizkuntzaren azterketa zeharo deskriptibo da, eta eztabaida nagusiak analogista eta anomalisten kontzepzio desberdinek sortuak dira. Grekoa eta latinari buruzko zenbait ikerketa burutu ziren, baina Erdi Arora arte itxaron behar izango dugu lehenengo gramatika espekulatiboak, edo modistak, sortu arte.

Filosofu presokratikoen, eta sofistek geroxeago, eztabaidatu zuten gaia, Platonen zenbait dialogotan ere agertzen dena, honako hau da: onartutako arauak, erakundeak, balio-judizioak (ondo ala gaizki dagoena, bidezkoa dena),... eta hizkuntza ere, zein neurritaraino oinarritzen diren gauzen izaeran bertan ala gizaki guztien arteko hitzarmenean.

Natur hitzarmenaren eztabaida hau, filosofia grekoaren ardatza den fisis-nomos eztabaidaren islada kontsidera daiteke. Platonek eta Epikurok bitarteko jarrera izango dute auzi honetan. Platonek, "Kratilo" izeneko dialogoan, zeinuak Naturak ezarriak ez direlako ideiatik abiatuz, legegileari egokien deritzo ezarpen hori burutzeko. Eta Platonek gaineratzen du legegileak jakingo duela gauza bakoitzaren izaerari dagokion izena zuzen ematen. Honela izanik, Platonen ustez, zeinuen naturalak izaten jarraituko dute, gauzei egiten zaien izen-ezarpen hori pertsona jakitun batek boluntarioki burutzen duelako, gauzen izaerari egoki eutsiz.

Estoikoen iritziz izenak naturalki sortzen dira, izendatzen dituzten gauzen jatorrizko soinuak imitatuz, hau da onomatopeiaren bidez. Aristotelek, ordea, hitzarmenezko ikuspuntua defendatu zuen tinkoki: "Hizkuntza hitzarmenez sortzen da, ez bait da gizakirik naturaz sortzen". Hizkuntzaren nozioari buruzko Aristotelen lan nagusia *De interpretatione* dugu. Bere hasieran, Condillac-en ideiak gogora ekarriz, honela dio: "Hizkuntza, gogoaren esperientzien errepresentazioa da, eta idazkuntza hizkuntzaren errepresentazioa da. Bestaldetik, Aristotelearen kategoriak errealitatea artikulatzeko moduak dira, baita hizkuntzaren barneko terminoen sailkapenerako tresnak ere.

Hala ere, goian aipatu dugun bezala, gramatika espekulatiboaren benetazko sorrera XII. mendearen erdialdean etorriko zaigu Pedro de

Heliasen eskutik. Eskolastikaren testuinguruan Prisziano eta Donatoren ildotik egindako latinaren deskripzio soila eskasa izan zen. Deskripzio gramatikal hau eta filosofia eskolastikaren arteko integraziotik sortu zen gramatika espekulatiboa. Bestaldetik, Eskolastika San Tomas Aquinokoa bezalako pentsalariak zuzendutako filosofia aristotelikoa eta teologia katolikoaren arteko integraziotik sortu zen. Eskolastika izan zen fede kristauaren laguntzaz giza jakintzaren atal guztien batasuna sendotu zuen eta arrazoi eta errebelazioaren kezkak adiskidetu zituen sistema filosofikoa. Beraz, aipatu dugun bezala, Eskolastikaren garaian gramatikaren deskripzio soilak ez ditu ondo betetzen komentaristen kezkak. Hauek Priszianok gaia behar bezala ez zuela sakondu pentsatzen zuten, eta azpiko teoria, baita erabili zituen elementu eta kategorien justifikazioa ere, aztertu behar izan zituela ere. Ildo honetatik, hutsune hau bete nahian, XII. mendearen erdi aldean Pedro de Heliasen Priszianori buruzko komentario bat idatzi zuen; bertan, Priszianok azaldutako arau gramatikalen arrazoi filosofikoak deskribitzen saiatu zen. Pedro de Heliasen garrantzia bi puntutan datza, batez ere: alde batetik, ordurarte sakabanatuta, ilun eta nahasi egon ziren azalpen gramatikal asko sistematizatu zuen; bestetik, bere komentarioan Aristotelesaren *Categoriae* eta *De Interpretatione* erabili zituen elementu gramatikalak eta logikoak batuz. Logikari emandako garrantzi hau Goi-Eskolastikaren ihardueran nabari daiteke, batez ere, teologiatik gero eta gehiago askatuz doan heinean.

Momento honetatik, filosofoak gramatikan duen papera funtsezkoa izan zen, eta gramatika unibertsalaren ideia jaio zen.

Modistak

Aipatu dugunez, 1100. urtera arte, filosofia eskolastikoa hasi arte, gutxi gorabehera, ikerketa linguistikoa hizkuntzaren alde praktikora mugatu ziren, autoritate greko-erromatarrengan oinarrituta, eta Teologiaren menpe. Ordurarte, bada, iharduera linguistikoa ia guztiz pedagogikoa izan zen bere helburuetan, Donato eta Priszianoren gramatikari jarraituz, latinaren irakaskuntzarako bideratua izanik.

Pedro de Heliasen eskutik, gramatikalari espekulatibok Prisziano eta Donatoren gramatika berraztertu zuten, eta bertan errealitatearen eta giza adimenaren ahalmenen islada zuzena aurkitu zuten. Gramatikalari hauek, Aristotelesaren kategoriez baliatuz, errealitatea eratzeko moduak, eta hizkuntzaren barruan terminoak sailkatzeko moduak ere aztertu zituzten, "modista" izenaz ezagunak direlarik. Erdi Aroko gramatika modistikoan, beraz, Aristotelesaren doktrinaren interpretazio eskolastikoa ageri da; gainera, gramatika hau teoriara zuzendua zen batipat.

Sistema modistikoan gauzek, izaki existentziadunak direlarik, propietate edo existentzi modu batzuk (modi essendi) dituzte. Adimenak gauzak ulerpen-modu aktiboen bidez (modi intelligendi activi) atzematen ditu, hauei ulerpen-modu pasiboak (modi

intelligendi passivi) dagozkielarik, hau da, gauzen kalitateak adimenak atzetan dituen bezalaxe. Hauxe izango litzateke errealitatearen ezagutzaren esparrua. Hizkuntzaren esparruan, berriz, adimenak ahozko soinuei (voces) adierazpen-modu aktiboak (modi significandi activi) ematen dizkie, eta hauen bidez hitzak (dictiones) eta perpausaren parte (partes orationis) bilakatzen dira, gauzen kalitateak adierazten dituztelarik. Kalitate hauek adierazpen-modu pasiboen bidez (modi significandi passivi), hau da, hitzek adierazitako gauzen kalitateen bidez, errepresentatzen dira.

Gauzek bi modi essendi daukate; hauek gauza guztietan aurkitzen dira eta munduaren hautemate, nahiz hizkuntzaren konstituzioaren oinarriak dira. Alde batetik, modus entis a hots, denborazko iraunkortasunaren propietatea dago, zeinaren bidez gauzak gauza bezala ezagutzen bait dira; eta bestetik, modus esse-a, aldaketa eta suzesioaren propietatea, alegia, denbora-jarioan aldaketa eta prozesuen adierazlea. Modus entis-a momen-aren bidez adierazten da, eta modus esse-a, berriz, verbum-aren bitartez.

Materia eta formaren arteko bereizketari dagokionez, modi essendi, modi intelligendi passivi, eta modi significandi passivi-ak formalki desberdinak dira, maila desberdinetan daudelako, baina materialki berdinak dira gauzen propietateei lotuta bait daude, nahiz eta gauzak modu desberdinetan kontsideratuak izan: diren bezala, adimenean ulertzen diren bezala, ala hizkuntzak adierazten dituen bezala.


Sistema honen funtsezko elementuak modi significandi-ak dira. Perpausaren parte bakoitzak, edota hitz-klase bakoitzak, errealitatea modu desberdin baten bidez errepresentatzen du. Deskripzio-sistema hau, eta bere azpian dagoen teoria, Dionisio Traziakoa eta Priszianoren sistemekin pareka daiteke; hortaz Priszianoren latinaren zortzi hitz-klaseen definizio modistikoa honako hau litzateke, Thomas de Erfurtek (*De modis significandi sive grammatica speculativa*, 1.350) egindako interpretazioan:

- nomen: existentzia moduaren bidez adierazten duen perpausaren parte, ezaugarri bereizgarriak dituelarik. Iraunkortasunari dagokio.
- verbum: denborazko prozesuaren moduaren bidez adierazten duen parte; substantziatik banandua.
- participium: denborazko moduaren bidez adierazten duen perpausaren parte; substantziatik banandu gabea.
- pronomen: existentzia moduaren bidez adierazten duen perpausaren parte; ezaugarri bereizgarriarik gabea.


Beste parteak ez dira deklinagarriak; hauexek dira:

- adverbium.
- coniunctio.
- praepositio.
- interiectio.

Honako hau izan liteke eskema:



Adibidez



Hitz-klase deklinagarriek filosofia eskolastikoaren kategoriak dituzte erreferentzi gisa; eta azken hauek, funtsean, izatearen kategorია aristotelikoetaraino eraman daitezke. Esan bezala, gramatika modistikoan Aristoteleren doktrinaren interpretazio eskolastikoa oso nabaria da. Thomas de Erfurten sistema honetan, perpausa onargarri batek lau printzipio bete behar ditu, lau kausa aristotelikoekin parekarriak direnak:

- materiala: hitzak, klase gramatikalen osagai direlarik.
- formala: hitzen arteko lotura konstrukzio desberdinetan.
- eragilea: harreman gramatikalak forma deklinatuetan adieraziak.
- xedezkoa: pentsamendu oso baten adierazpena.

Beraz, laburbilduz, esan genezake modistek beren ezagutzaren teoria hizkuntzan isladatu zutela sistema gramatikala eraikitzeko.

Existentzi moduak (modi essendi) metafisikaren esparruan aztertuko dira, ulerpen-moduak (modi intelligendi) logikaren bidez, eta adierazpen-moduak (modi significandi) hizkuntzaren adierazpideak izango dira. Baina modistek Gramatika logikatik askatu zuten (Port-Royal-en kontrakoa gertatuko da; ez dugu elementu gramatikal bat bere adieraziaren bidez definitu behar, baizik eta, hitz eta gauzen arteko erlazio-motaren bidez. Hau dela eta, gramatikalariek espekulatiboei ez zien axola handirik Erdi Aroko filosofoak gehien kezkatu zituen arazoa, unibertsalen arazoa alegia.

Gramatika espekulatiboaren aztergaia "sermo"-a zen, hau da, perpausa adierazkorra; ez ziren, bada, arduratu gauzaz (res), ezta elementu fisikoaz (vox) ere. Hortaz, gramatika espekulatiboan aritu zirenak ez ziren, berez, nominalista kontsideratu. Baina, gogora ditzagun zeintzu diren nominalismoaren postulatuetak.

Nominalismoa

Erdi Aroko unibertsalei buruzko eztabaidan jarrera nominalistak unibertsal bat, espezie edo genero bezala ulertuta, ez dela entitate erreala eta entitate errealetan ere ez dagoela defendatu zuen: ahotsaren soinu bat da, "flatus vocis" alegia. Unibertsalak ez daude "ante rem" (ez daude gauza baino lehen) errealismoak edo "platonismoak" baieztatzen duen bezala. Ez daude ere "in re" (gauzaren baitan), kontzeptualismoak, errealismo moderatuak (sailkapen honetan kokatuko genituzke modistak), edota "aristotelismo"ak defendatzen dutenez. Unibertsalak, batez ere, izenak, berbak edo terminoak dira (nomina, voces, termini). Nominalismoak dioenez, indibiduoek eta entitate partikularrek besterik ez dute benetazko existentziarik. Beraz, hauek lirateke nominalismoaren ezaugarriak:

- unibertsalaren nozioa ahotsaren soinua da.
- entitate partikularrek dira gauza erreal bakarrak.
- kualitatea ezin da banandu kualitate hori "daukan" gauzatik.

Beraz, aipatu dugunez, modistek eratutako hizkuntzaren teoria, modi essendi, intelligendi eta significandi-en bidezkoa, errealismo moderatuan oinarritzen da (unibertsalak gauzaren baitan, "in re" daude). Korronte hau Santo Tomas Aquinokoak interpretatutako ikuspegi aristotelikoa da, filosofia tomistaren osagai izan zena. Zentzu honetan, giza ezagutzari dagokionez, adimenak unibertsalak gauza partikularren propietate errealeatik abstraitzen ditu. Modisten hitzetan essendi-ak, modi intelligendi bezala kontsideratzen ditu, eta hizkuntzak abstrakzio horiek modi significandi-en bidez komunikatzen laguntzen du. Guzti honen azpian datzan sinestea da gizaki orok era berean burutzen duela prozesu hau, eta azalezko desberdintasunak izanda ere, mintzaira orok metodo bera jarraitzen duela komunikazioan. Berrito modisten hitzak erabiliz, modi essendi, modi intelligendi eta modi significandi pasiboak materialki berdinak eta formalki desberdinak direla esango genuke. Pentsamenduaren prozesuen berdintasun materiala izango da gramatika espekulatiboaren ardatz nagusia.

Garai honetan suposatzen zen Jainkoaren adimenean unibertsalak (ideiak) onartzea, Jainkoaren ahalgutzia murriztea zela, eta gauzetan unibertsalak (ideia, formak) onartzeak, gauzek ideiak edo modelo propioak badituztela edo izan ditzaketela suposatzen zuen, Jainkoaren ahalgutzia ere mugatzen zuelarik.

Dena den, nominalistak argitu egin behar du berarentzat nomen-a, vox-a,

etab. zer diren. Nomen-a errealtate fisiko bat dela esaten badu, izen bera termino desberdinen bidez nola ezagut daitekeen azaldu beharko du. Erantzuna adieraziaren iraunkortasuna izango litzateke; beraz, hitzarmenaren bidez sortu behar dira izenak. Nolabait ere, nominalisten ustez izenak ez daude "extra animan" (gauzetan dela, izen eta adieraziz osatutako unibertso independente batean dela), "in anima" baizik.

Erdi Aroaren bukaera aldean nagusitu zen nominalismoa Gilermo Ockhangoak azaldutakoa da. Honen ustez, zeinuen funtzioa "supponere pro" da, hots, izendatutako gauzen orde egotea. Beraz, zeinuak ez dira propioki gauzenak; zeinuek izendatu egiten dituzte gauzak.

Nominalismo-errealismo eztabaida hau, ikertzen ari garen garai honetako autoreen artean zabaldu zen. Locke bera ez zen nominalista izan, kontzeptualista edota errealista moderatua baizik. Haatik, nominalistak izen ziren Hobbes, Berkeley eta Condillac, besteak beste. Hobbes-ek eta Condillac-ek zientzia eta hizkuntza zientifikoan oinarritu zuten beren nominalismoa; Berkeley, ordea, supostu teologikoetan oinarritzen zen, Gilermo Ockhangoak bezala. Nominalismo-mota guzti hauek entitate abstrakturik (ideiak, unibertsalak) ez dagoela esaten dute; entitate konkretoak besterik ez dago.

Gramatika espekulatiboaren ibilbidean modistek itxi zuten kapitulu bat. XV eta XVI. mendeetan zehar "hizkuntzalari"ak ez ziren kezkatu gai

honetaz, eta XVII. mendeko irakidura linguistikora iritsi arte ez zen ekarpen nabaririk izan... Francisco Sanchez de las Brozas-ek, Brocense-a ezizenez ezagunak, XVI. mendeko bukaera aldean egindakoa izan ezik.

Izan ere, XV. mendean erretorikari eta "bon usage" delakoari garrantzi handia eman zitzaion, interes linguistikoa beste arazoetara desbideratuz. Hala ere, hizkuntzalaritzaren norabide-aldaketa hau oso ulergarria da Errenazimentuak ekarritako abiapuntu filosofikoen aldaketa kontutan harturik.

"El Brocense". Errenazimentuaren lekuko

Errenazimentuan, gramatika espekulatiboaren oinarriak zorrozki kritikatuak izan ziren filosofikoki harroak izateagatik, heziketarako desegokiak, eta latinaren sasi-etorkin izkutuak zirelako. Autore klasikoei lehentasuna eman zitzaion jatorrizko izakeran ulertuta, teologiaren bitartekotasuna baztertuz.

Ezaguna da zer elementuk bultzatu zuten Errenazimentuko jarrera filosofikoaren sorrera. Humanismoaren gorakada, nazionalismo eta gobernu sekularren gorespina, Europaren hedakundea, inprentaren asmakuntza, elkarte kulturalak sortzea...; faktore guzti hauek, zalantzarik gabe, beren aztarna utzi zuten ikerketa linguistikokoaren garapenean.

Francisco Sanchez de las Brozas, "El Brocense" ezizenez ezaguna dena,

faktore hauek eragindako testuinguruan kokatzen da. 1523an jaioa, ikasketa klasikoetan hezia, eta Erasmoren jarraitzailea, gaur egun Brocense-a gramatikalari eta hizkuntzaren filosofo orijinala kontsideratua izaten da. Bere ustez, gramatika dialektika (logika) eta erretorikaren oinarri razionala zen. Beraz, gramatika "filosofikoa" da, hizkuntzaren oinarri razionalak ezartzen zituena. Sanchez de las Brozas-ek kategorien doktrina aristotelikoa kritikatu zuen, eta subjektua eta predikatua besterik ez zirela kontsideratu behar esan zuen. Mintzaira erabilerak kontutan izan bazituen ere, ez du uste onartuak izan behar dutenik erabilerak izate hutsagatik, hau da, arrazoitu gabe. Sanchez de las Brozas-ek hizkuntzaren "teoria razionala" burutu zuen.

Brocense-ak errealitate eta gizonaren artean kokatzen du hizkuntza; izenak eta etimologiak gauzen izaeratik hartuak izan zirenez, gauzen berezko izaeran bilatu behar dira hizkuntz gertakariak. Sanchez de las Brozas perpausan dauden elementuak razionalki azaltzen saiatzen da. Perpausaren osagarriak hiru dira: izena, aditza eta partikula. Zatiketa hirukoitz hau justifikatzeko hiru irizpidetan oinarritzen da gure autorea: lehendabizi, sailkapen honen unibertsaltasunak mintzaira guztietan erabiltzeko bide ematen digu; bigarrenez, Plutarko-k, San Agustin eta Platon-ek erabili izanak autoritate-kutsua eskaintzen dio; eta, azkenik, gauzen izaera bera honelakoa izatea. Izan ere, izendatzen dugun oro iraunkorra ala iragankorra da.

Sanchez de las Brozas-ek elipsiaren teoria garatu zuen, elipsia hizkuntzaren funtsezko propietatea delarik. Nahiz eta teoria honen hasierako helburua testuen interpretazioa izan, aipagarria da Sanchez de las Brozas-ek emandako adibideen, eta azalezko egituraren teoria eratzeko ematen diren adibideen arteko antza, bai gramatika klasikoan, baita teoria modernoetan ere.

Beraz, Sanchez de las Brozas-engan Errenazimentuko pentsakeraren elementu asko aurki ditzakegu. Hain zuzen ere, Brocense-ak hizkuntzaren teoria razionala burutu zuen, deskriptibismo eta taxonomismotik aldenduz; autore klasikoei garrantzia eman zien, baina irakurketa kritiko baten ondorioz, autoritate-irizpidea gaitzetsiz "dogma"-kutsua hartzen zuenean. Gizakiaren ahalmenean jarri zuen konfidantza, ordena transzendentala alde batera utziz.

Zenbait autorek Sanchez de las Brozas-ek idatzitako *Minerva, seu de causis linguae latinae* (1587), eta Arnauld eta Lancelotek 1660an idatzitako *Grammaire générale et raisonnée* (Port-Royal-eko Gramatika bezala ezaguna) parekatu egin dute. Badakigu Lancelot-ek, behintzat, ezagutu, erabili eta estimatu zuena. Zentzu honetan, Ramon Morillo-Velarde-k honela dio: "...tanto la "Minerva..." como la "Grammaire..." se inscriben en la misma línea de pensamiento, adoptan idéntica actitud metodológica ante el estudio de la lengua y persiguen la misma meta, bien que los resultados sean diferentes y, a menudo, contradictorios". Dena den, geroxeago ikusiko dugunez,

abiapuntuak ere desberdinak dira, eta zenbait aspektutan analisiak ere bai. Baina hau Port-Royal-eko Gramatika aztertuko dugunerako utziko dugu.

Nolanahi ere, Sanchez de las Brozas Errenazimentuan Erdi Aroko modisten eta Port-Royal-eko Gramatikaren arteko hizkuntzalaritzan dagoen bitartekorik aipagarriena kontsidera dezakegu. Iraganbide honetan beste zenbait elementuk (filosofikoak, edo pentsakeraren arlokoak orokorrean) izan zuten eragina. Lan honen hitzaurrean aipatu dugunez, gure iritziz, Descartes-ek eta bere ingurukoek bultzatutako epistemologiak izugarritzko eragina izan zuen hizkuntzalaritzaren biderapenean, aurrerago azaltzen saiatuko garen bezala.

Baina Descartes, Bacon edo Hobbes-ek, besteak beste, eratutako sistema filosofikoak Errenazimentuak ekarritako batasun zientifikoaren (eta linguistikoaren) hausturaren aurka sortu ziren, baita honek sortarazi zuen eszeptizismoari aurre egiteko ere. J. Labord-ek *Filosofía y cautividad de la lingüística* artikuluan hau bera azpimarratzen du; utz diezaiogun hitza: "Y llama la atención el perfecto paralelismo entre filosofía y la lingüística (más bien, pilotaje a distancia de la primera sobre la segunda) en los siglos XVI y XVII, que merecería mejor explicación. La quiebra de la unidad filosófica del XVI tiene su proyección en la constatación de la "babelización" del mundo y la pérdida de la unidad lingüística y del ideal de expresión científica. El escepticismo epistemológico filtra

escepticismo lingüístico. Por contra, las doctrinas filosóficas pretendidamente absolutas del XVII tienen su repercusión lingüística en los proyectos de unidad material (lenguaje universal) y formal (gramática universal). Materialmente se busca clarificar las palabras y distinguir entre cosas y palabras. Formalmente se intenta descubrir las reglas del pensamiento y de su expresión lingüística. De esta suerte, en el XVII el criticismo filosófico determina una confianza metodológica de corte nacionalista o enpirista y pone fin a la zozobra sobrevenida con el agotamiento de la escolástica y de los paradigmas gramaticales grecolatinos".

XVII. mendea: Eszeptizismoaren aurkako borroka

Aipatu bezala, XVII. mendean eszeptizismoak izugarritzko gorakada izan zuen, batez ere, Erasmorengandik Descartes-engana doan tartean. Goian azpimarratu ditugun elementuez gain. Erreformak sortutako kezka ere oso eraginkorra izan zen, egia erlijiosorako irizpidea alegia. Izan ere, eztabaida batean erabaki ahal izateko egi irizpidea behar da; baina irizpide honek ere beste irizpidea behar du, eta horrela "ad infinitum".

Errenazimentuko platonismoan, Erdi Aroko arrazoi eta errebelazioaren arteko batasuna mantentzen bazen, jakintzaren kontzeptu absolutua zuzpertuz, aristotelismoan, berriz, egia bikoitzaren teoria zegoen indarrean. Alde batetik, egia filosofikoa, bestetik, teologikoa. Adibidez, Errenazimentuan

pil-pilean zegoen eztabaidari dagokionez, arimaren hilezkortasuna alegia, arrazoi naturalak ezin zuen ulertu animaren hilezkortasuna edo Jainkoak egindako munduaren kreaioa. Beraz, filosofian, anima ez zen hilezkorra eta mundua ez zen sortua izan. Baina, fedea kontrakoa esaten bazigun, kontrakoak ere egiazkoa izan behar zuen. Honen muturrezko adierazpidea averroismoa dugu.

Hau dela eta, eszeptizismoa nagusitu zen, eta XVII. mendeko autore asko ahalegindu ziren eszeptizismo honen aurkako ziurtasun-irizpidea bilatzen. Bilaketa honetan abiapuntu desberdinetatik abiatzen ziren, baina denek bat bera zuten helburu.

Jakinaenez, garai honetan pentsakera filosofikoa enpirismo eta nazionalismoaren arteko eztabaidetan aritu zen; eta alde bakoitzeko ikuspuntuak arazo linguistikoen tratamenduan izan zuten eragina. Bi jarrera filosofiko hauek matematikaren demostrazio eta metodo zientifikoaren ziurtasunean jarri zuten beren konfidantza. Bien arteko desberdintasuna ez da Descartes-ek matematikari lehentasuna ematea, edo Lock-ek esperientziari ematea. Aldiz, desberdintasuna zientzia modernoaren razionaltasunaren oinarriak ezartzean dator. Kasu batean razionaltasuna izango da ordena objektikoa, metafisikoki oinarritua; bestean, berriz, giza psikismoaren ahalmena izango da. Baina, neurri batean, bi jarrerak izan daitezke nolabait tradizionalistak.

Francis Bacon-ek 1620an idatzitako *Novum Organum* izeneko liburuan ezagutza zientifikoa, esperientziatik abiatuta, metodo inductiboaren bidez eratu behar zela adierazi zuen. Fisika arartegabeko esperientziaz arduratzen da, metafisika igoera inductibo honen printzipio orokorrenez arduratuko delarik. Dena den, metodo honek emaitza onak eman ditzan, (edo "idola") asko baztertu behar dira, horietako bat hizkuntzaren erabilerak sortutako nahasketa ("idola fori") delarik.

Bacon-en garaikidea, eta berarekin batera, Descartes-en garaiko enpirismo ingelesaren ordezkaria dugu Thomas Hobbes. Descartes-ekin bat dator munduaren kontzepzio mekanizistari dagokionez, baita materia hedadura eta higidurarekin identifikatzen duenean ere. Baina Hobbes, Descartes ez bezala, azken ondorioetaraino da mekanizista, eta gorputz hedatsuak besterik ez direla errealitate bakarra eta filosofiaren aztergai esaten du. Ezagutza sentsaziotik dator; hizkuntzak ideiak izenen bidez errepresentatzen ditu, ezagutza matematiko eta zientifikoaren ahalbideak ezarriz. Proposizio baten bi izenen arteko lotura adierazten du, eta egiazkoa da bi izenok gauza bera (ideia bera) izendatzen dutenean. Beraz, zientziaren axiomak definizio nominalak dira, eta hortaz, frogapen zorrotzen posibilitatea.

Garai berean, Galileo-k, zientzia modernoaren ordezkariarik aipagarrienetakoa, konfidantza osoa azaltzen du naturaren izaera matematikoan. Natura bera, eta ez isladapen

platonikoren bat, aztertzen da matematikaren bidez. Esaterako, Galileo-k egindako lehen eta bigarren mailako kualitateen arteko bereizketan, lehen mailakoak hedadura, kopurua eta irudia dira, hau da, kualitate matematikoak.

Descartes-en lana, nolabait, eszeptizismo epistemologikoaren aurkako erreakzio bat bezala kontsidera dezakegu. Bere garaikideak bezala, zientzia modernoaren oinarri sendoak ezartzeaz arduratzen da, ziurtasun-irizpideak bilatuz. Bacon, Hobbes eta Galileo bezala, matematika eta geometriaren baliabideak erabiliko ditu bere analisia burutzeko, hau da, Erdi Aroko Eskolastikaren metodoekiko haustura eragin zuten baliabideak. Descartes-ek hedaturari eta higidurari besterik ez die errealitaterik ematen, ziurtasuna, berriz, pentsatzeari bakarrik ematen diolarik. Substantzia pentsatzaile eta substantzia hedatsuen arteko bereizketak dualismoa sortarazten du. Hortaz, hedaturaren mundua eta izpirituaren mundua berezituko ditu, Jainkoa (Substantzia Absolutua) lokarria delarik.

Descartes-en jarrera idealista da, baina ez dio errealismoari uko egiten. Substantzia pentsatzaile eta hedatsuen arteko bereizketa ageria da, bata bestearen bazterteaz definitzen bait da. Baina, bereizketa hau Errenazimentuko eztabaida nagusienetariko batean islada daiteke, arima eta gorputzaren arteko erlazioan alegia. Auzi honen oihartzunak linguistikaren esparruan ere nabaritutako dira, aurrerago ikusi ahal izango dugunez.

Descartes-ek proposizio apodiktiko bat bilatzen du; berez, tradizio eta autoritate guztiak baztertuta, sinisgarria den egia. Egia honetatik, katea deduktibo batean zehar ematen diren intuizio batzuen bidez, gainontzeko egiak ondoriozta daitezke. Egia hau gizaki orok dute amankomunean. Zein da?, edo hobeto esanda, zeintzuk dira? Descartes-ek erantzungo digu izpirituak, pentsatzaile izateagatik, dituen jatorrizko ideiak direla. Cogito-a lehen mailako ideia argia eta gardena da, lehen ziurtasuna. Cogito-tik abiatuta, izpirituak, subjektu pentsatzailea izate soilagatik, bere baitariko ebidenteak diren printzipio batzuk aurkitzen ditu; printzipio nabari hauek, edo jatorrizko ideiak, erabiltzen ditu ezagutzak, hautematetik eta errepresentaziotik sortutako nozioak analizatzeko.

Beraz, Descartes-ek ez du silogistika aristotelikoa erabili nahi; silogistika honek, alde zurretik ezarrita dauden printzipio logikoak ordenatzen eta demostratzen ditu. Descartes-ek aurkikuntzarako eta asmakuntzarako bidea aurkitu nahi du; metodo demostratiboa baino, sortzailea nahiago du.

Metodoaren bilaketa eta aurkikuntza, zalantzaren prozesu metodikoa, Cogito-aren nabaritasuna eta Jainkoaren existentziaren demostrazioa dira filosofia kartesiarraren lau elementu nagusiak. Jakina, hau dena matematika eta geometriaren baliabideak erabiliz, zientzia modernoa eraikitzearen. Descartes-en fisikak, metafisikak eta ezagutzaren teoriak bere garaiko pentsakeraren beste

elementuetan eragingo dute, linguistikaren alorrean ere oso eragin nabaria izango delarik.

Kartesianismoaren inguruan bilduko diren XVII eta XVIII. mendeko hizkuntzalariak Descartes-engandik jasoko dituzte printzipio batzuk hizkuntzaren analisisian erabiltzeko. Besteak beste hauek izan daitezke autore hauengan aurki ditzakegun aportazio kartesiarrak, gramatika espekulatiboaren ibilbideari norabide-aldaketa nabaria eragingo diotenak: pentsamenduaren analizagarritasuna; analisi honetatik sortutako azken printzipioen antolaketa logiko-matematikoa; analisi eta antolaketa honen islada linguistikoa (zenbait autorek esango dute alderantziz gertatzen dela, hau da, hizkuntzaren analisiak uzten digula pentsamendua analizatzen); forma-materia/arima-gorputza bikoiztasunaren alderdi linguistikoa azpiko eta azaleko egiturei dagokienez; gramatika orokorra gizaki guztiek amankomunean duten ondasuna, mintzaira bakoitzeko berezitasunak analisi linguistikoan kontutan hartu gabe; hizkuntzaren aspektu sortzailearen gorespena, gizakiok hiztun egiten gaituena,.. etabar. Eragin gehiago aipa genitzake, baina, azkarregi joan gabe, kartesianismoaren ondorengoak diren autore hauen banakako analisitik sortuko dira.

Egin dezagun pixkat atzera, eta gogora ekar dezagun gramatika espekulatiboaren nondik norakoa zertan zetzan XVII. mendeko hasieran. Aipatu genuenez, modistek Aristoteleren kategoriak Prisziano eta

Donatoren gramatikei aplikatuz eratu zuten ezagutzaren analisi modistikoa; hitzak gauzekin zuten harreman-motaren arabera definitzen ziren, hau da, adimenak sentimenen bidez atzematen zituen gauzen kalitateak, eta kalitate hauek hitzen bidez adieratzen ziren, beti ere, kategoria aristotelikoak erabiliz hitzak sailkatzerakoan. "El Brocense"-k eratutako analisisia kategoria aristotelikoetatik urruntzen zen, bi bakarrik onartuko zituelarik. Modistek bezala, hizkuntzaren alde deskriptibo soila kritikatu du, gramatika unibertsalaren oinarriak bilatuz.

Baina, Errenazimentuaren eskutik datorren hizkuntza nazionalen gorespenak gramatika deskriptiboei eskainiko die lehentasuna, analisi filosofikoa harrotzat hartua izango delarik. Hizkuntzalariek erretorikaz ihardungo dute, eta hizkuntzaren erabilera egokiaz kezkatuko dira batipat. Jarrera honek hizkuntza partikularrei emandako garrantziak oztopatuko du hizkuntzaren bidez eginiko pentsamenduaren analisisia, eta, ondorioz, eszeptizismo linguistikoa nagusituko da, eszeptizismo epistemologikoaren islada zuzena izanik. Honen adierazlea Vaugelas-ek 1647an idatzi zuen *Remarques sur la langue Françoise* izeneko liburua dugu. Bere helburua hizkuntzaren erabilera egokia da, "bon usage" alegia, deskribitza; bere gramatika ez da arrazoitua, ezta preskriptiboa ere. Baina, gramatika filosofikoaren erreakzioa ez da Vaugelas eta bere moduko beste hizkuntzalarien aurkakoa, deskriptibismo soilarekiko atxekiduraren aurkakoa baizik.

Preskripzioa versus deskripzioa

Gramatika deskriptiboa doinuaz eta adieraziaz arduratzen da; gaur egungo terminologia erabiliz, perpausa bakoitzari sakoneko egitura abstraktua, bere edukin semantikoa zehazten duena, egokitzen diola esango genuke. Baina XVII. mendeko gramatika ez zen gramatika deskriptiboaz, zentzu honetan, bakarrik arduratu, baizik eta gramatika orokorraz, hau da, hizkuntzaren egituraren printzipio unibertsalez.

Vaugelas ez zen erabileraren lehentasuna azpimarratu zuen lehengoa. Mende bat aurrerago, frantses gramatika zaharrenetako batean, Meignet-ek azpimarratzen zuen esaten genuen bezala esan behar genuela eta frantsesaren ahoskeraren erabilpenaren aurka ezin zela legerik ezarri (horrela aipatzen du Livet-ek *La grammaire française et les grammairiens du XVI^e siècle* izeneko liburuan).

Kartesianismoaren inguruko hizkuntzalariek deskriptibismo soilaren aurka duten erreakzioak laburtzen digu XVIII. mendeko gramatika espekulatiboaren eboluzioa, erabilpen-bilduma soila eskaini beharrean, hizkuntzaren azalpen razionala eskaini nahian. Gramatika espekulatiboak gramatika unibertsala eta partikularra bereiztuko ditu; adibidez, Roger Bacon-en iritziz, bere substantziari dagokionez, gramatika bat bera da hizkuntza guztietan, akzidentalki aldatzen bada ere. Gramatika orokor eta partikularraren arteko bereizketa honi dagokionez,

ikus dezagun XVIII. mendeko hiru autorek duten ikuspuntua. César Chesneau Du Marsais-ek honela dio: "Il y a dans la grammaire des observations qui conviennent á toutes les langues; ces observations forment ce qu'on appelle la grammaire générale: telles sont les remarques que l'on a faites sur les sons articulés, sur les lettres qui sont les signes de ces sons; sur la nature des mots, et sur les différentes manières dont ils doivent être ou arangés, ou terminés pour faire un sens. Outreces observations générales, il y en a qui ne sont propres qu' à une langue particulière; et c'est ce qui forme les grammaires particulières de chaque langue".

D'Alembert-ek berdintsu esaten digu: "La Grammaire est donc l' ouvrage des Philosophes; -L'esprit philosophique seul peut remonter jusqu'aux principes sur les quels les regles sont établies... Cet esprit appersçoit d'abord, dans la Grammaire de chaque Langue, les principes généraux qui sont communs à toutes les autres, et qui forment la Grammaire générale; il démêle ensuite dans les usages particuliers à chaque Langue, ceux qui peuvent être fondés en raison, da'vez ceux qui ne sont que l'ouvrage du hasard ou de la négligence: il observe l'ingluence réciproque que les Langues ont ene les unes sur les autres, et les altérations que ce mélange leur a donnés, sons leur ôter entièrement leur premier caractere: il balance leurs avantages et leurs désavantages mutuels; la différence de leur construction...; la diversité de leur génie...; leur richesse et leur liberté, leur indigence et leur servitude. Le

développement de ces différens objets est la vraie Métaphysique de la Grammaire. -Son objet est... la marche de l'esprit humain dans la génération de ses idées, eta dans l'usage qu'il fait des mots pour trnasmettre sus pensées aux autres hommes".

Azkenik, Beauzée-k horrela definitzen ditu gramatika orokorra eta partikularra: "La Grammaire, qui a pour objet l'enonciation de la pensée par le secours de la parole prononcée ou écrite, admet donc deux sortes des principes. Les uns sont d'une vérité immuable et d'un usage universel, ils tiennent à la nature de la pensée même, ils en suivent l'analyse, ils n'en sont que le résultat; les autres n'ont que'une vérité hypothétique, et dépendante des conversions fortuites, arbitraires et muables, qui ont donné naissance aux différents idiômes. -Les premiers constituent la Grammaire générale, les autres sont l'objet des diverses Grammaires particulières-.

La Grammaire générale est donc la science raisonnée des principes immuables et généraux du Langage prononcé ou écrit, dans quelque langue que ce soit.

Une Grammaire particulière est l'art d'appliquer auc principes immuables et généraux du Langage prononcé ou écrit les institutions arbitraires et usuelles d'une langue particulière".

Beraz, ikusten denez, eta Du Marsais-ek berak azpimarratzen duenez, gramatika filosofikoaren kezka ez zen hizkuntza txikuntzea eta hobetzea, oinarrizko printzipioak

aurkitzea eta atzematen diren fenomeno partikularrak azaltzea baizik. Filosofo gramatikalariak ikertzen ari den hizkuntza bere baitariko harremanean aztertu behar du, ez beste hizkuntzekiko duen harremanetan. Ideia hau metodologia kartesiarrarekin bat dator; izan ere, metodologia honek behaketa eta esperimendu erabakiorren beharra azpimarratzen du elkarren aurka dauden bi azalpenen artean erabaki ahal izateko.

Lan honetan zehar behin baino gehiagotan aipatu dugunez XVII. mendean nolabaiteko irakidura gramatikalari-filosofikoa gertatzen da, deskripzio/preskripzio auzia adierazleatariko bat izaten delarik. Gramatika espekulatiboaren gorakadaren arrazoi batzu aipatu ditugu dagoeneko; Errenazimentuak dakarren eredu aristoteliko-eskolastikoaren agorpenak sortarazi zuen eszeptizismoaren aurka ikerketa linguistikoak ere ugaritu ziren. Bultzakada honen ardatz nagusiak hauexek izan litezke:

- Hizkuntza unibertsal (naturala ala artifiziala) baten eraketarako interesa, kalkulu unibertsalerako eta gramatika orokor filosofikorako interesekin lotuta. Hauen aurrekariak Erdi Aroan aurkitzen ziren ordurako, baina Descartes eta Leibniz bezalako razionalista modernoek bultzatu zituzten bereziki garai honetan.
- Logikaren aspekto linguistikoekiko interesa (Port Royal-eko Logikan ageria den bezala).

- Enpirismo ingelesetik, Locke-rengandik bereziki, datozen zeinuen teoriak.

Elementu hauen ikerketari heltzean, lehendabizi enpirismo ingelesari ekingo diogu, hizkuntzalaritzan izan zituen eraginak aztertuz. Bacon, Hobbes edo Locke, besteak beste, izan daitezke pentsakera filosofikoa honen adierazlerik aipagarrienak, baina guk bereziki Locke-ren sistema epistemologikoa funtsezkoa den zeinuen teoria aztertuko dugu.

Enpirismoaren eragina

John Locke (1632-1704) enpirista eta razionalista batera kontsidera dezakegu, edo, nahi badugu "enpirista razionala". Descartes-en lanak irakurri zituen, eta kartesiar eta gassendiarrekin izan zituen harremanak. Bere asmoa giza ezagutzaren jatorria, ziurtasuna eta mugak ikertzea da, baita sinismen eta onarpen-mailak zehaztea ere.

Bere proiektuari hasiera emateko, jatorrizko printzipioak edo nozioak kritikatzeko ditu. Adimena "tabula rasa" da, eta bertan esperientziak "idazten" du. Apika, adimenak bereganatuko ditu ideia partikular batzuk; hauek oroimenean gordeko dira eta izenak erantsiko zaizkie. Horrela, adimena ideiez eta hizkuntzaz hornituz doa.

Locke-ren ustez, "ideia" adimen-fenomeno oro da. Ideiak sententziazkoak ala erreflexiozkoak izan daitezke; lehenengoak kanpoko esperientziaz datoz, bigarrenak, berriz, barruko esperientziaz datozelarik.

Adimenak pasiboki jasotzen ditu eta Locke-k "ideia sinpleak" deitzen die; hauetatik abiatuz, adimenak "ideia konposatuak" sor ditzake konparaketa, konposaketa eta abstrakzioaren bidez. Ideia jatorrizkoenak hedadura, sendartasuna eta higidura dira. Beraz, Locke-ren sistema filosofikoan substantzia hedatsuaren ideia sentsaziotik dator, substantzia pentsatzailearena erreflexiotik, eta esperientzia izango da biak ziurtatzen dituenak.

Ezagutza-mailei dagokienez, hiru dira: ezagutza intuitiboa, zeinean izpirituak ideien arteko adostasuna edo ezadostasuna atzematen bait ditu berez, arartekorik gabe; ezagutza demostratiboa, beste ideia batzuen arartekotasunaren bidezkoa gauzatzen dena, eta propioki arrazonamendua dena; azkenik, sentimenen bidezko ezagutza, edo existentzia partikularren ezagutza.

Existentzia errearen ezagutza, geure buruaren existentziaren ezagutza intuitibora murrizten da. Beraz, gure burua besterik ez dugu ziurtasun osoz ezagutzen.

Locke-ren ustez, ezagutza intuitiboa ziurra da; ezagutza demostratiboa, berriz, onargarria, eta azkenik, sentimenen bidezko ezagutza erlatiboa da. Ezagutza-motarik sendoenak intuitiboa eta demostratiboak dira; esaterako, demostratiboak dira ezagutza matematikoa eta Jainkoaren existentziarena.

Laburbilduz, Locke-ren ustez adimena ideiez eta hizkuntzaz osatzen

dela esan genezake, jatorrizko ideiak baztertuz eta kritikatu. Izenak dira adimenak bereganatu eta oroimenean gordetzen diren ideia partikularrei eransten zaizkienak, ideia hauek komunikatu ahal izateko. Nolanahi ere, esperientzia izango da beti abiapuntua.

Locke-ren ildotik zenbait hizkuntzalarik sistema gramatikal "enpirikoak" osatu zituzten. Hauetako bat dugu John Wilkins, Royal Society delakoaren sortzaileetariko bat, eliza anglikarraren pertsona garrantzitsua eta Ingalaterako proiektistarik aipagarriena; proiektismoa ikerlari ingeles batzuk hizkuntza unibertsalaren proiektuaz duten kezka gramatikalari deritzo. John Wilkins-ek 1668an idatzi zuen bere obra nagusia: *An Essay towards a Real Character and a Philosophical Language*, Liburu hau ez da gramatika bat; Lulio Mersenne, Lodwick eta Dalgarmo, besteak beste, zientzia esperimentaletarako aurkitzen saiatu ziren hizkuntza unibertsalaren adibiderik landuena da. Wilkinsek, Leibnizek ez bezala, hizkuntza analogikoa, hizkuntza naturalaren baliabideen bidez sortua, sortu nahi du, diskurtsoaren eremuan sartzen diren gauza eta nozio guztiak adierazteko balio duena. Kezka hau XVII. mendean zehar oso nabaria izan zen orduko hizkuntzalari eta pentsalarien artean. Izan ere, hizkuntza berri eta zehatz baten beharra dago, hizkuntza, ezagutzeko tresna bait da, hizkuntza, zientzia bait da.

Mintzaira arruntzak ez dira egoikiak; hitzek nahasketa sor dezakete, esaera askok esangura ugari dituzte,

metaforak ez du balio zientifikorik, erabilera emotiboak ere badaude, anomaliak... etab. Hitzek sinbolo matematikoen indarra lortu behar dute; bestela ez dago zientzia egiterik.

Beraz, mintzaira arrunten erabilerak sortutako anabasa konpontzeko, hizkuntza analogikoa eratu nahi du Wilkinsek. Hizkuntza berriak gauzen itxuraren azpian dagoen ordena agertarazi behar du. Gauzak kontzeptuen bidez ezagutzen direnez, pentsamenduak zer ordenatan sailkatzen eta garatzen diren ezagutu behar da. Hortaz, gauza eta nozioen errealitatea ikertu behar da, beren adierazpen linguistikoa egin ahal izateko. Berriro gramatika espekulatiboaren kezka jasotzen dugu, hau da, pentsamenduaren analizagarritasuna eta bere adierazpen linguistikoa.

Gorago aipatu dugunez, XVII. mendean nolabaiteko irakidura linguistikoa ematen da, faktore desberdinek eraginda. Wilkinen lana beste adibide bat dugu. Gogora dezagun, hamarkada berean, zortzi urte lehenago besterik ez, Lancelot eta Arnauldek beren *Grammaire générale et a raisonnée* idatzi zutela, bi urte beranduago (1662) *Logique* idatzi zutelarik. Irakidura linguistikofilosofiko honen zergatiak aipatu ditugu jadanik; baina beste autore batek, Javier Laborda-k alegia, beste modu batez analizatzen du.

Izan ere, tradizio eta modernitatearen arteko integrazioa azpimarratzen du, baita linguistika eta filosofiaren artekoa ere; entzun

diezaigoun: "La tradición consiste en lo gramatical (...). La modernidad o innovación la aporta la nueva filosofía (racionalista y empirista), que se traduce en unas inestimables epistemología y metodología para la andadura que inician los señores de Port-Royal -Claude Lancelot y Antoine Arnauld- y John Wilkins. La filosofía suministra un punto de arranque y una forma de descubrimiento, esto es, una epistemología en la que basar la certeza lingüística y la orientación de la tarea; y una metodología para progresar en la consecución del objetivo".

Helburua unibertetsala da; unibertetsaltasun hau bi bide desberdinetatik bilatzen da; alde batetik, gramatika unibertetsala; eta bestetik, hizkuntza unibertetsala.

Azter dezagun orain Wilkinen metodoa eta ikus dezagun, abiapuntu empirista batetik, Descartes-en metodoarekin nolabait pareka litekeela, biak garaikideak direlarik. Wilkinsek metodo induktiboa erabiltzen du, bere garaiko zientzia esperimentalen metodoa; arazoaren planteamendutik abiatzen da: "babelizazioa", hau da, hizkuntzen balio zientifikorik eza. Bigarren urrats metodologikoa arazoa sortaratzaren duten oztopoei buruzko informazio-bilketa da; adieraziaren aldetik, oztopoa da mintzaira eta hitzen izaera partikularra, toki bakoitzean desberdinak bai dira; adierazlearen aldetik gauza bera gertatzen da alfabeto, idazkera edota ahoskerarekin.

Aurreko bi urratsek helburu suntsitzailea badute (Baconek "idola"-ekin egiten duen bezalaxe), hirugarren fasean lan eraikitzaileari ekiten dio, giza ezagutzaren antolakuntza kontzeptuala osatuz. Fase honetan Wilkinsen joera enpirista oso nabaria da, mundu materialaren objektuetatik abiatzen baita bere taulak osatzeko.

Prozesu inductiboaren laugarren zatia gramatika baten asmakuntza da. Aurreko fasean antolakuntza semantikoa egin bazuen, oraingoan, berriz, sintaxiari ekiten dio, hau da, hitzen antolakuntza diskurtsoaren baitan.

Azkenik, lan teorikoa eginda, idazkuntza erreala eta hizkuntza filosofikoa sortu nahi ditu. Honetarako, zeinu bereziak asmatzen ditu ideiak zehazki eta egoki adierazi ahal izateko, nahasketak eta zientifikotasunik eza baztertuz.

Beraz, Wilkinsen lanean gramatika espekulatiboaren kezka ikus dezakegu, modu enpirista batetik aztertuta.

Zer esanik ez, autore honek Lockeren ildotik burutzen duela bere ikerketa, zientzia modernoaren baliabideak erabiliz, hau da, metodo inductiboaz eta matematikaren laguntzaz. Baina, enpirismo eta razionalismoaren arteko muga askotan ez da oso nabaria; esan genezake, garai honetan abiapuntuetan datzala bien arteko desberdintasuna, ez hainbeste metodologiari dagokionez. Zehaztu behar da non bilatuko dugun ezagutza: kanpoko errealitatean, munduan

(Wilkinsek bezala); edo barruko errealitatean, adimenean (Port-Royal-ek egiten duen bezala).

Baconek eskolastikari egindako kritika zorrotza izanda ere, Wilkinsek ez ditu eskema aristotelikoak baztertzen; honela, kategoriak, generoak, espezieak, etabar erabiltzen ditu bere ikerketan. "izateari dagokionez, partikularrak lehentasuna badu ere, jakiteari dagokionez, berriz, orokorra doa lehen" dio Wilkinsek. Izan ere, Wilkinsen garaikideak ezbaian daude: taxonomia enpirista ala logika klasikoaren antolakuntza.

Descartes bera saiatu zen Wilkinsek egindako ezagutzaren antolakuntza moduko zerbat egiten, baina, horren zailtasuna ikusirik, baztertu egin zuen proiektu hau beste ikerketa eskuragarriagoi ekinez.

Ildo beretik, baina urte batzuk beranduago, Etienne Bonnot de Condillac-en lana datorkigu. XVIII. mendeko autore honek arazo psikologikoei ekin zien, XVII. mendeko filosofoen razionalismo eta innatismoa zorrozki kritikatu, kontzeptu hauek ezagutza intelektualean jatorria aztertzeke eskasak bait ziren. Locke-rekin erabat ados ez badago ere, bere teoriaren puntu nagusiak onartu zituen; horrela, bere iritziz, adimenezko nozioak beste nozio edo ideia sinpleagoek osatuta daude. Nozio batzuetatik besteetara dagoen iraganbidea azaltzeko analisi zorrotz bat egin behar da, baina ez analisi psikologikoa, logikoa baizik. Hautematek datoz nozio sinpleak,

transformazio batzuen bidez nozio konposatuak sortuko dituztenak.

Condillac-en ekarpen filosofiko garrantzitsuenetariko bat, sentazioen teoria da; bestea, berriz, hizkuntzaren teoria. Condillac-ek sentazio bat ez dela oraindik "ideia" bat esaten digu, Locke-ren zentzuan ulertuta. Ideia bat egoteko sentazio bat beste batzuekin (izaera berekoak edo desberdinekoak) zeinu edo sinboloen bidez erlazionatzea beharrezkoa da. Sinbolo hauek osatutako sistema hizkuntza dugu. Eta sistema edo sare honen barruan sortzen diren kontzeptuak edo judizioak dira ezagutza posibilitatzen dutenak.

Hizkuntzaren terminoen eta fenomenoaren arteko korrespondentzia ezinbestekoa da zientzia egoteko. Hau dela eta, Condillac-ek baztertu egin zituen filosofo razionalisten konstrukzio sistematikoak, bere iritziz, espekulatiboegiak zirelako.

Condillac-ek hizkuntza naturalean pentsamendu bakoitza osoa, batera eta suzesiorik gabe adierazten dela ikusten du. Aldibereko ideien hizkuntza hau da naturala den bakarra. Gizakia, ohitu egin da soinu artikulatuez eraturiko hizkuntzara; eta, hitzak, batzuk besteen ondoan antolatzen ditugunez, ideiak bata bestearen atzetik datozela pentsatu dugu. Baina guk ez ditugu ideiak horrela osatzen. Pentsamendua, berez, konposatua denez, hizkuntza natural bakarra, aldibereko ideien hizkuntza da.

Hizkuntzak jarraituko duen pentsamenduaren analisia, alde aurretik

hasi du Naturak. Zatitzearen ahalmen natural hau sentazioetan datza; izan ere, entzumenak, ikusmenak, ukimenak, usaimenak eta dastamenak eskaintzen dizkigute lehenengo dato bereiztuak. Analisi hau inkonsziente da, ez gara berataz ohartzen; analisia aurrera eramateko gizakiak hitz egin egin behar du; hitz egitea izango da Condillac-en teoriaran elementu aktiboa, pentsamenduaren pasibitatearen aurkakoa.

Hizkuntza unibertsala edo filosofikoaren asmoa denek dute gogoan nolabait, giza ezagutzaren antolakuntzaren adierazpide bezala. Ikuspuntu enpirista eta razionalista ez daude elkarrengandik hain urrun. Munduaren esperientzia eta eza-gupenak ez dira sentimenen somaketa soilak, eta razionalisten "jatorrizko ideak" Locke-ek onartzen zituen "gure adimenen barneko eragiketekin" pareka daitezke nolabait. Beste zenbait autorek, ordea, bi korronteen arteko bereizketa, eta bereizketa honek izan dituen eraginak azpimarratzen dituzte. Honela, Juan Benavide Delgado-k *Pensamiento* aldizkarian (1982, Madril, 150.zkia) bereizketa honek hizkuntzalaritzaren munduan izan duen eragin erabakiorra adierazten digu.

Gorago esan dugunez, enpirismo ingelesatik datorren zeinuen teoriarekin batera, hizkuntza edo gramatika unibertsalarekiko interesa (modistekin hasita, batez ere) eta Logikaren aspekto linguistikoekiko interesa ziren XVII. mendeko "irakidura" linguistikoaren bultzatzaileak. Azter dezagun orain Port-Royal-eko abadian idatzitako

Grammaire générale eta raisonnée
izeneko obrak suposatu zuena.

Port-Royal: logikaren gorespena

XVII. mendean ez dago zalantzarik Logikaren unibertsaltasunaz; beraz, printzipio batzuk, unibertsalak, pentsamendu logikoaren egitura adieraztean hizkuntza guztiek onartu behar dituztenak, badaudela suposatzeak bidezkoa dirudi. Halaber, printzipio hauek arrazoiaren bidez ezagut daitezkeela ulertzen da, hau da, indukzioa bazterturik, adimenaren eragiketa logikoen bidez. Azkenik, gramatika orokor honek hizkuntzaren erabilpen desberdinen azalpena eman diezagukeela onartzen da.

Port-Royal-eko autoreek ez dute hizkuntza filosofiko bat asmatu nahi, hizkuntzaren itxuraren azpian datzan ordenaren ulermena baizik. Gramatika unibertsalaren (edo filosofiko, edo orokorraren) helburua mintzaira guztien azalpena da arau unibertsal batzuen bidez. Honek gizaki guztiek adimenaren antolaketa berbera dutela baltzuan auresuposatzen du, hau da, pentsamenduaren amankomunitatea dagoela. Hona iritsiak garelarik, hizkuntza unibertsala eta gramatika unibertsalaren arteko bereizketa funtsezkoa da.

Zenbait autore hizkuntza unibertsala, akatsik gabekoa, eta zientziarako baliagarria izan daitekeena asmatzen ahaleginduko dira. Ikusi dugunez, hauxe da John Wilkinsen asmoa: zientzia enpirikoek emandako sailkapenak erabiliz,

hizkuntza berri bat asmatzea, gauza bakoitzaren espezie, jenero eta kategoriak egokien azaltzeko. Leibniz ere kezkatu zen arazo honetaz, baita Descartes bera ere. Baina, aipatu bezala, oso desberdina da hizkuntza unibertsal bat asmatu nahi izatea, eta hizkuntzaren baitan dagoen gramatikaren azalpen unibertsala eman nahi izatea.

Wilkinsek enpirismo bakondarra bereganatzen du, eta ondorioz kanpokoari eskaintzen dio lehenetasuna. Port-Royal-ekoek, ordea, razionalismo kartesiarra jasotzen dute: ideien ezagupenera zuzenduko dute beren ikerketa. Idealismo hau, oinarri logikoen gainean eraikita, gramatika baten eraketan gauzatzen da, pentsamenduaren ezagupena posibilitatzen bait du. Port-Royaleko autoreek hizkuntza eta pentsamenduaren arteko erlazioak ezartzen dituzte; honetarako unibertsal linguistikoak eta hizkuntzaren egitura sakona ikertuko dituzte. Port-Royalen, beraz, mentalismoaz gain, jatorrizko ideien teoria ere onartzen da.

Metodoari dagokionez, Port-Royalekoa hipotetiko-deduktiboa da guztiz. Abiapuntua da adimenaren eragiketei buruzko hipotesia; izan ere, pentsamenduak egituratzen du hizkuntza, azkeneko hau lehenengoaren islada izango delarik. Bi eremu hauen elementuen arteko korrespondentziak azaltzen dira: ideia eta hitza; judizioa eta proposizioa.

Bigarren urrats metodologikoa dedukzio-katea da. Hauexek dira faseak: gramatikaren kontzeptua, zeinu

linguistikoa (adierazpenaren edukia eta forma, pentsamenduaren edukia eta formaren islada delarik) eta gero ortografia, morfologia eta sintaxia.

Ikusten denez, metodo honek ez dauka zerikusirik Wilkinsek erabilitako metodo inductiboarekin.

Port-Royaleko *Logique...* eta *Grammaire...* lanek oso ondo lotutako batasuna azaltzen dute. Biak gizakien pentsamenduaren identitatetik abiatzen dira eta azkenik hitz egitearen artearen arauak ikertzen dituzte. Gure adimenean hiru eragiketa-mota daude: bururatzea (kontzeptuak sortzea), judikatzea eta arrazoitzea; azkeneko hau ez doakio gramatikari, Port-Royaleko Logikan sartzen bait da. Lehendabizi, Gramatikak kontzeptuak nola konbinatzen diren judizioak sortzearen aztertzen du, eta hemendik zein izan daitekeen edozein gramatikaren forma orokorra ondorioztatzen du. Beraz, gure pentsamenduen adierazpen naturala aztertuta, oinarritzko egitura unibertsala osatzen saiatzen da.

Izan ere, Arnauld eta Lancelot-entzat hizkuntza da pentsamendua adierazteko tresna, eta gainera, pentsamenduaren ispilu zintzoa. Baina, azpimarra dezagun hizkuntza ez dela pentsamendua; bi eremu desberdinetan daude. Hortaz, hasteko, pentsamendua analizatzen dute; analisi honetatik aterako diren kategoriak, kategoria gramatikalen oinarrietan ere egongo dira. Gorago aipatu ditugun pentsamenduaren hiru eragiketa-mota horien produktuak hauexek dira:

kontzeptuak, judizioak eta arrazonamenduak. Judizioa kontzeptuen batuketa edo bereizketa da, eta arrazonamendua bi judiziotatik abiatuta hirugarren judizio baten eraketa da. Horregatik, lehen aipatu dugun bezala, gramatikaren interresgunea judizioa da.

Judizio, Gramatikaren alorrean proposizioa deitzen da; eta proposizio orok hiru osagai ditu: a) subjektua; b) predikatua; c) eta aurreko bien arteko lotura. Subjektua eta predikatua adimenaren lehenengo eragiketari doazkio, hau da, pentsamenduaren objektuak dira (kontzeptuak); bi hauen arteko lotura, ordea, adimenaren bigarren eragiketari doakio, judizioak sortzeari alegia; eta hau da propioki gure adimenaren ekintza, gure pentsatzeko modua. Adimenaren hirugarren eragiketari dagokionez, arrazonamendua alegia, Logikaren esparruan aztertzen da eta, esan bezala, ez du Gramatikarako interes handiegirik.

Hemendik Arnauld-ek eta Lancelot-ek hauxe ondorioztatzen dute: gizakiek hitzak asmatu badituzte beren pentsamenduak adierazteko, eta pentsamenduan dagoen lehenengo bereizketa pentsamenduaren objektuen (kontzeptuen) eta moduen artekoa baldin bada, beraz, egin behar den lehenengo hitz-bereizketa hauxe izango litzateke: pentsamenduaren objektuak adierazten dutenak eta pentsamenduaren forma edo modua adierazten dutenak, azkeneko hauek orokorki lehenengoekin lotuta badaude ere.

Oinarrizko bereizketa honi jarraiki, perpausaren parteak bi taldetan biltzen dituzte: izenak, artikulua, izenordeak, aditzondoak, preposizioak eta partizipioak osatzen dute lehenengo multzoa; bigarrenen, berriz, aditzak, konjuntzioak eta interjekzioak leudeke. Lehenengo multzokoek pentsamenduaren objektuak adierazten dituzte, bigarrenen pentsamenduaren moduak adierazten dituztelarik.

Hortaz, Port-Royaleko autoreek klasikoek egindako bederatzi hitz-klaseen sailkapena onartu zuten, nahiz eta, ikusi dugunez, semantikoki antolatu hitzak.

Ekar dezagun gogora orain Sanchez de las Brozasek, "El Brocense" egin zuen hitz-sailkapena, oso antzekoa bait da zenbait puntutan, nahiz eta funtsezko analisisian abiapuntu desberdinetatik ekiten dion hizkuntzaren analisiari. Dakigunez, Brocense-ak errealitatearen eta gizakiaren artean kokatzen zuen hizkuntza; berarentzat hizkuntza ez da pentsamenduaren ahozko itzulpen soila, Port-Royaleko autoreek esaten dutenez. Brocensearentzat ere perpausaren osagaiak hiru dira: izena, aditza eta lotura. Ikusten dugu, bada, emaitzak berdinak direla, ez ordea beren jatorria. Sailkapen hau justifikatzeko hiru irizpide erabiltzen ditu Brocenseak: unibertsaltasuna (mintzaira guztietan ematen bait da), autoritatea (autore klasikoen sailkapenari darraio), eta, azkenik, gauzen izaera bera: izan ere, dagoen oro iraunkorra (izena) ala iragankorra (aditza) bait da.

Eskolastikoek ez bezala, Port-Royalekoek arrazoiari eskaini zioten lehentasuna, autoritate-irizpideari eman beharrean, eta Descartesengan oinarriagotu ziren, Aristotelerengan baino. Port-Royaleko Gramatikan, lehendabiziko aldiz, hizkuntzarako hurbilpen kartesiarra burutzen da.

Eta puntu honetara iritsiak garelarik, modistek egindako analisisa ere ezin dugu ahaztu. Modistek ere, mintzaira guztien ezaugarri unibertsalei eskaini zieten garrantzia, mintzaira bakoitzak azaleko itxura desberdina badu ere. Baina, modistentzat, ezaugarri unibertsal hauek adimenak errealitatea haute-mateko modu desberdinen islada linguistikoak dira. Modistek gauzen izaera desberdinen inguruan osatzen dute beren sailkapena; beraz, haute-matearen analisisa egiten dute, pentsamenduarena baino. Port-Royalekoen oinarri unibertsalistak pentsamenduan eta gizakiaren arazoian dautza.

Modisten antzera, J.C. Escaligerok ere, izena eta aditzaren arteko bereizketa azaltzerakoan, iraunkortasuna eta iragankortasuna kategoriak erabili zituen Descartesaren garaian, eta horregatik kritikatu izan zen.

Iradokitu ekin da, baita ere, Brocense-ak *Minerva* liburuan egiten duen elipsiaren teoria izan daitekeela Port-Royaleko Gramatikak aipatzen duen analisisaren oinarria; izan ere, analisi honek bi maila desberdin bereizten ditu: logikoa eta gramatikala; eta analisi gramatikalean agertzen ez

den elementu bat, analisi logikoaren bidez azalduko da, perpausaren osagai bezala. Teoria hau, gramatika generatibo transformazionalaren abiapuntu moduan ere aipatua izan da; baina, gai hau gerorako utziko dugu.

Sanchez de las Brozas-ek eraturako elipsiaren teoriari dagokionez, Chomsky-k baztertu eta ukatu egin du teoria honek Port-Royaleko Gramatikarekin izan dezakeen erlazioa. Elipsiaren teknika batzutan erabil daitekeela esaten du, baina ez duela adimenezko errepresentaziorik behar horretarako; adibideak oso antzekoak badira ere, testuingurua zeharo desberdina da: Iraultza kartesiarrak bi kontzepzio hauek bereizten ditu. Iraultza kartesiarra zer den azaltzen zaila izanda ere, Ramón Morillo-Velarde-k Brocense eta Port-Royalekoen arteko desberdintasuna, kartesianismoaren ikuspuntutik aztertuta, pentsamenduaren teoriarik ikuspuntuaren desplazamendua izango litzatekeela esaten digu: objektu ezagututik, subjektu ezagutzai-learengana. Beraz, ezagutzarako subjektuak duen garrantziaren oharpena izango litzateke Descartesek bultzatutako Brocense eta Port-Royalekoen arteko desberdintasuna, hau da, "iraultza kartesiarra".

Port-Royaleko autoreek erlatibozko esaldiei buruzko analisi interesgarria ere egin zuten, Brocensearen elipsiaren teoriarekin eta zentzu batean, gramatika generatibo transformazionalistaren sakoneko eta azaleko egituren teoriarekin ere pareka daitekeena. Hitz gutxitan esanda, honela izango litzateke: esaldi batek

adimenezko barneko aspektu bat dauka (sakoneko egitura bat, bere esanahiarekin batera), eta kanpoko aspektu fisiko bat ere (soinu-multzo bat). Haren azaleko analisiak agian ez ditu barruko loturak agertzen. Sakoneko egitura, berriz, beti errepresentatzen da adimenean, adierazpen fisikoa (soinu-multzoa) ematen denean. Sakoneko egitura proposizio-sistema bat da; proposizio hauek subjektu-predikatu motakoak dira, subjektu eta predikatua sinpleak direlarik, hau da, kategoriak. Esaldi bat egiteko, pentsamendu hori dauka sakoneko egituratik abiatuta, transformazio arau batzuk erabili behar ditugu esaldiaren parteak ondo kokatzeko, kentzeko, edota lekuz aldatzeko; azkenik, soinu-multzoa izango dugu, baina adieraziaz horniturik.

Arnauld-ek, *Logique...* izeneko liburuan, esaldi baten benetazko forma logikoak agian ez duela inolako zerikusirik esaldi horren azaleko egitura gramatikarekin gogorarazten digu. Port-Royaleko Gramatika erabat literalki aztertzen bada, ikus dezakegu ez dituela identifikatzen oinarrizko egiturak esaldi efektiboekin, gramatika generatibo transformazionalaren oso hurbil dagoelarik. Izan ere, azken honek transformazio-arauak aplikatzen zaizkien egiturak oinarrizko egitura abstraktuak direla esaten du, ez, ordea, esaldi efektiboak.

Dena den, ez gara luzatuko Port-Royaleko Gramatikaren analisi sakon batean, ez baita hori lan honen helburua. Aipatuko dugu, ordea, Arnauld eta Lancelot-en obra,

historialariaren aurrean, garai hartako bizitza intelektualaren bi kezka nagusik eraginda dagoela: alde batetik, garai hartan indarrean zegoen "bon usage" delakoaren doktrina; eta bestetik, razionalismo kartesiarraren gorakada.

Lehenengo puntuari dagokionez, aipatu dugu dagoeneko, Vaugelas-ek, besteak beste, defendatutako erabilpen egokiaren gorespenaren aurkako erreakzioa izan zela Port-Royaleko Gramatika. Izan ere, autore honek erretorikari ematen dio lehentasuna, hizkuntzaren analisi filosofikorik egin gabe, hau da, justifikazio bakarra erabilpena da, besterik ez.

Razionalismo kartesiarraren eraginari dagokionez, Donzée-k eragin hau metodoan nabaritzen dela esaten du. Beste autore batek, Miel-ek alegia, ukatu egin du eragin hori; bere iritziz, metodoari dagokionez, eragin nagusia Pascal-engandik eta tradizio agustinianetik dator. Ramón Morillo-Velarde ere bat dator iritzi honekin, eta Pascal-en eragina defendatzeko badaudela arrazoi historikoak azpimarratzen du. Honela dio Morillo-Velarde-k: "No creemos que esta obra (Port-Royaleko Gramatika) sea una herencia directa del cartesianismo ni que resulte de una aplicación del sistema filosófico de Descartes a la teoría lingüística. Eso es afirmar demasiado. En ella se admite la razón como principio constitutivo del lenguaje, pero el método seguido no es estrictamente cartesiano. No creemos que exista justificación alguna para lo que se ha denominado "Lingüística cartesiana" o, al menos, que la

"Grammaire générale et raisonnée" pertenezca a ella si existe una teoría del lenguaje directamente derivada del sistema de Descartes".

Tradizio gramatikal hau Descartesengandik datorrelako ideia Saint-Beuve-rengandik jasotzen du Chomsky-k; Saint-Beuve-ren ustez, Port-Royaleko ideia gramatikalak dira Descartes-ek berak bultzatu ez zuen kartesianismoaren luzapen bat. Beste autore batek, Aarsel-ek alegia, kritikatu eta baztertu egin du Chomsky-ren teoria; Aarsel-ek pentsatzen du ez zela Descartes 1660tik aurrerako tradizio gramatikala zuzpertz zuena, Locke baizik. Aarsel-ek uste du Locke-ren ildotik Condillac-ek idatzitako *Essay* izeneko liburua izan zela gramatika unibertsalerako gidaliburua. Halaber, Du Marsais-ek tradizio hau bultzatu zuela, eta autore hau oso antikartesiarra zela aipatzen du.

Nolanahi ere, Port-Royaleko Gramatikan Descartes sistemak izan dezakeen eragina oso eztabaidatua izan da. Gure aldetik, lan honen sarreran aipatu dugunez, gramatika espekulatiboaren ibilbidean Descartes teoriak suposatu zuen aldaketa aztertzen saiatuko gara eta zentzu honetan aztertu dugu zeintzu izan daitezkeen Port-Royalekoen aurrekariak eta bultzatzaileak. Baina, horretarako ez dugu Port-Royaleko Gramatika soilik aztertuko, XVII eta XVIII. mendeetan biltzen den tradizio gramatikala baizik. Tradizio honi "Linguistika kartesiarra" dei geniezaioke, ez Descartesek berak bultzatu zuelako, kartesianismoaren

inguruan korapilatzen diren ideien islada linguistikoa delako baizik.

Linguistika kartesiarraren kontzeptua oso kritikatu eta eztabaidatu izan da Chomsky-k *Cartesian Linguistics* liburua 1966an idatzi zuenetik. Bertan aipatzen diren ideia batzuk aztertu ditugu lan honetan dagoeneko; besteak orain azalduko ditugu. Dena den, ideia hauen analisia ez dugu Descartes-en teoriara murriztuko, gramatika espekulatiboaren ibilbidean kokatuko bait ditugu. XVII. mendean atzematen den ikerketa linguistikoaren norabide-aldaketaren zergatiak bilatuko ditugu, Linguistika kartesiarra zer den ikertuko dugunean.

Linguistika kartesiarra

Konbinazio honen sortzaileak, Noam Chomsky-k alegia, adierazten digu zeri deitzen dion "Linguistika kartesiarra"; Enrique Wulff-ek *Cartesian Linguistics* liburuaren itzulpenean honela irakur dezakegu: "Con la combinación `lingüística cartesiana´ deseo caracterizar una constelación de ideas e intereses que aparecen en la tradición de la `gramática universal´ ó `filosófica´ que se desarrolla a partir de la "Grammaire générale eta raisonnée" de Port-Royal (1660); en la lingüística general que se desarrolló durante el período romántico y sus consecuencias inmediatas; y en la filosofía racionalista de la mente que, en parte, constituye para ambas un fondo común".

Linguistika kartesiar honen esparruan, gramatika deskriptibo bat soinuaz eta adieraziaz arduratzen da; gaur egungo terminologia erabiliz, esaldi bakoitzaren sakoneko eta azaleko egiturak azaleratzen dituela esango genuke, edukin semantikoa eta forma fonetikoa zehaztuz. Baina, lehenago aipatu dugunez, linguistika kartesiarra ez zen bakarrik auzi honetaz kezkatu, gramatika orokorraz baizik, hau da, hizkuntzaren egituraren printzipio unibertsalez. Eta gramatikaren teoria hau orokorra izateaz gain, arrazoitua ere izango da, arrazoiaren bidez eraikia alegia.

Dagoeneko aipatu ditugu lan honetan zeintzuk izan daitezkeen kartesianismoaren inguruan, XVII eta XVIII. mendeetan, biltzen diren hizkuntzalariengan aurki ditzakegun aportazio kartesiarrak, gramatika espekulatiboaren ibilbideari norabide-aldaketa nabaria eragingo diotenak. Berriro ekarriko ditugu gogora: hizkuntzaren aspekto sortzailearen gorespina, gizakiok hiztunak egiten gaituena; gramatika orokorra gizaki guztiok amankomunean dugun ondasuna, mintzaira bakoitzeko berezitasunak analisi linguistikoan kontutan hartu gabe; *forma = materia/substantzia* pentsatzailea-substantzia hedatsua bikoiztasunaren alderdi linguistikoa, sakoneko eta azaleko egiturei dagokienez; pentsamenduaren analizagarritasuna, eta analisi honetatik sortutako antolaketa logiko-matematikoaren islada linguistikoa.

Hauek izango lirateke, besteak beste, linguistika kartesiarraren

kontzeptua osatzen duten ideiak. Aztertuko ditugu orain, banan-banan, eta ideia hauek zein autorerengan aurki ditzakegun azalduko dugu.

Hasteko, Descartes-en sisteman hizkuntzaren aspektu sortzaileak zer paper jokatzen duen aztertuko dugu. Descartes-entzat, adimenaren existentzia ebidentea da; adimena substantzia bat da, bere esentzia pentsatzea delarik. Hau nabaria da introspekzioaren bidez. Baina, hau ez da arazoa; arazoa beste adimenen existentzia da. Eta hau frogatzeko proba indirekto batzuk bilatuko ditu Descartes-ek.

Animalietatik bereizten gaituena hizkuntza da. Hizkuntza kanpoko eraginetatik askatua da, eta ez da bakarrik komunikatzeko tresna; hizkuntza, batez ere, pentsamenduaren adierazlea da. Bere posibilitateek ez dute mugarik: arau partikular batzuk, besterik ez. Hizkuntzaren aspektu sortzaileak bi gauza demostratzen ditu: alde batetik, beste adimenak badaudela; bestetik, gizaki guztien artean pentsamenduaren batasuna badagoela.

Descartes-ek, hizkuntzaren erabilpen arruntaren aspektu sortzailea justifikatzeko azalpen mekanizistarik ez zegoela ikusiz, gorputzaz gain, adimena (substantzia pentsatzailea) beste gizakiek ere badutela ondorioztatzen du. Ildo berean, Dordemoy-k (1628-1684) beste pertsonekin dugun harremanetik datozkigun pentsamendu berriek frogatzen dutela gurea bezalako adimena badutela esaten du. Autore

honek 1666an idatzitako *Discours Physique de la Parole* izeneko liburuan jaso zituen Descartesek hizkuntzaren esplikazio mekanizistari buruz egindako azalpenak. Halaber, Cordemoyk, bigarren hizkuntza baten ikasprozesoa gure adimenean dauden ideiei ekspresio berriak egokitzea besterik ez dela esaten digu, pentsamendua eta hizkuntzaren prozesuak unibertsalak bait dira.

Bougeant-ek ere 1729an idatzitako *Amusement philosophique sur le langage des bêtes* liburuan baztertu egin zuen hizkuntzaren azalpen mekanizista. Baina garai berean, 1747an, La Mettrie-k *L'Homme-Machien* idatzi zuen, bertan gizakia makinarik konplexuena zela defendatuz, eta hizkuntza ez zela gizonek zuten elementu bereizgarria esanez. Aldeko eta aurkako iritzi asko izan ziren, noski, baina guk bakarrik aipatu egin nahi izan dugu hizkuntzari eman zitzaion garrantzia beste izaki adimentsuen existentzia frogatzeko.

Descartesek defendatutako jatorrizko ideien teoria da linguistika kartesiarraren definizioaren beste osagai bat. Hizkuntzaren eskurapena eta unibertsal linguistikoen arazoa aztertzean, linguistika kartesiarrak XVII. mendeko psikologia razionalistaren kezka isladatzen du, hau da, giza ezagutzarako adimenaren ekarpena. Agian, kezka honen adibiderik zaharrena dugu 1624ean Herbert de Cherbury-k idatzitako *De veritate* izeneko liburua. Bertan esaten digu badaudela adimenean ezarritako zenbait printzipio edo nozio, gugandik gauzetara eramaten ditugunak,

naturaren dohainak bezala. Adimenezko egia hauek aplikatuta, sentsazio indibidualak konpara eta konbina ditzakegu, esperientzia interpretatuz. Baina, printzipio interpretatibo hauek ezin daitezke esperientziatik ikasi erabat, eta gainera, esperientziarekiko independenteak ere izan daitezke.

Beraz, nozio hauek zer diren zehaztu behar da, hau da, esperientzia posibilitatzen duten printzipio eta jatorrizko kontzeptu hauek. Esan bezala, nozio hauek ez dira esperientziaren emaitzak; haatik, printzipio hauek gabe, ez genuke inolako esperientziarik izango.

Nozio komun hauek estuki erlazionatuta daude, eta sistema batean sar daitezke. Dena den, ez dugu sistema hau "arrazoiarekin" identifikatu behar; arrazoia da nozio hauek aplikatzen dituen. Herbert de Cherbury-k jatorrizko printzipio interpretatibo hauek aztertu zituen bereziki; ezagutzarako eta esperientziarako "sine qua non" baldintza direla esan zuen, eta inplizituak direla azpimarratu zuen, eta batzuetan, kanpoko eragina behar dutela aktiboak izateko.

Hau dena azaltzerakoan, Herbert-ek linguistika kartesiarraren oinarrietan dagoen teoria psikologikoa azaldu zuen; modu berean, Descartesek, eta geroxeago platoniko ingelesek, Leibniz-ek eta Kant-ek garatuko duten ezagutzaren teoriaren aspektuak azpimarratu zituen. Psikologia hau preexistentziarik gabeko platonismo baten antzeko zerbait da; ezin zaigu

irakatsi alde zurririk gure adimenean ez dagoen ideiarik.

Hala ere, oharterazi behar da ez dela beharrezkoa unibertsal linguistiko hauek hizkuntza guztietan egotea. Adibidez, ezaugarri fonetikoaren multzo batek fonetika unibertsal bat osatzen duela esaten bada, ez du horrek esan nahi ezaugarri guztiek hizkuntza guztietan funtzionatzen dutenik, baizik eta hizkuntza bakoitzak ezaugarri-sistema horretatik bere aukera egiten duela; Beauzée-k, adibidez, hizkuntzarako beharrezkoak diren elementuak mintzaira guztietan badaudela esaten du; elementu hauek ezinbestekoak dira pentsamenduaren azalpen analitiko eta metafisikoa adierazteko. Hala ere, mintzaira bakoitzak bere aukera egingo du, elementu hauek aukera horren mugak ezartzen dituztelarik.

Azkenik, linguistika kartesiarraren kontzeptuaren osagai bezala forma eta materiaren arteko bereizketa aipatuko dugu, gramatika generatiboaren sakoneko eta azaleko egiturekin konparatuz. Aspaldiko tradizioak onartutzat jotzen du hizkuntzaren ulergarritasuna giza arimaren inmaterialtasunetik datorrela; hala ere, ez da erraza izaten "izaki inmateriala" izan daitekeena adieraztea, ezta honelako izaki bat gorputz batekin nola egon daitekeen lotuta azaltzea ere. Platon, adibidez, mitoaren inguruan zebilen; bere teorian, arimak gorputza gidatzen du marinelak bere unzia gidatzen duen eran; edota arimak gorputza probisionalki erabiltzen du, jantzia balitz bezala. Aristoteleren ustez, ordea, ulermena Adimen banandua da,

bat bera gizaki guztientzat. Gauza bera dio Averroes-ek. Avicena-ren iritziz, aldiz, badago Ulermen Gorena, baina, honetaz gain, gizaki bakoitzak badu bere ulermen propioa. Tomas Aquinokoak gizaki bakoitzak bere arima bazuela eta, nahiz eta arima hau bere gorputzaren forma izan, izaera desberdinekoa dela zioen, inmateriala alegia. Pomponazzi-k, ordea, arima, gorputzaren forma izanik, berarekin lotuta zegoela defendatzen zuen, gorputzarekin batera ere desagertzen zelarik.

Nolanahi ere, auzi hau oso eztabaidatua izan zen Errenazimentuaz geroztik, askotan azterketa metafisikoa eta teologikoa bereiztea oso zaila izaten zelarik. Auzi honen islada linguistikoa oso nabaria da, eta horrela esaten digu Etienne Gilson-ek *Linguistique et Philosophie. Essai sur les constantes philosophiques du Langage* izeneko liburuan (Francisco Béjar-en itzulpena erabiltzen dugu): "¿Habr  que volver entonces a la concepci n, hoy d a desacreditada, que ve a en la palabra y el sentido un caso particular de composici n `hilem rfica`, es decir, de materia y forma?". Gorputza materia bat denez, bere forma arima izanik, hitza materia izango litzateke, bere forma zentzua delarik. Forma hau materiatik aldendurik bizi daitekeen jakitea, arazo metafisikoa da. Egia esan, zentzua eta hitza beti elkarrekin daude, bat faltako balitz, ulergarritasuna galduko bait litzateke.

Beraz, dena materiaz eta formaz osatua baldin bada, zergatik ez hizkuntza? Horrela, hizkuntza arazo

filosofiko bihurtu zen. Baina, Descartes-ek korapilatu egin zuen arazoa; izan ere, bere metafisikan baztertu egin zituen "forma substantzialak", hau da, sistema hilemorfikoaren barruan, materiarekin lotzean substantzia desberdin bat osatzen zuten formak.

Dakigunez, Descartesen metafisikan materia hedadura da; modu honetan mekanizismoa eraikitzen du, dena hedadura eta higiduraren bitartez azaltzen delarik. Baina forma substantzialak baztertzen baditugu, gorputzak, izakiak, gizakiak... bi elementutan zatitzen dira: gorputza, hedadura hutsa, eta arima, izpiritu hutsa. Hortaz, nola azalduko dugu bi elementu desberdinen lotura eta interakzioa? Nola azalduko dugu gizakiaren gorputza eta arimaren arteko erlazioa? Ez Descartesek, ezta tradizio kartesiarrak ere, ez digute erantzunik ematen.

Arazo larria da, ondorio linguistikoa aztertzen badugu. Arima eta gorputza desberdinak badira, Descartesek ulertzen zuen bezala, hizkuntza analizatzea oso zaila gertatzen zaigu. Izan ere, hizkuntza hitzek osatua da, eta hitz hauek gorputz bat izan behar dute, soinua alegia, eta arima bat, zentzua hain zuzen, bien arteko inolako ahaidetasunik egon ez daitekeelarik. Ondorioz, hizkuntzaren posibilitate filosofikoa kolokan gelditzen da.

Geraud de Cordemoy konturatu egin zen. *Discours Physique de la Parole* izeneko liburuan azaltzen du bere asmoa: hitzak arimatik zer hartzen

duen, eta zer hartzen duen gorputzati-
zehaztu nahi du. Cordemoy-k dioenez,
hitz egitea pentsamenduaren zeinuak
ematea da; hala ere, zeinu eta
pentsamenduen arteko lotura hitzar-
menezkoa da, giza instituzio bat da.
Cordemoy poztu egiten da aurkikuntza
honekin; izan ere, zeinuen eta beren
adierazien arteko antzik ezak gorputza
eta arima, hain desberdinak izanik,
lotuta egon daitezkeela frogatzen
du. Arrazonamendu hau azken
ondorioetaraino eramanez gero, hitza
eta zentzuaren arteko erlazioan
aurkitzen du Cordemoy-k arima eta
gorputzaren arteko erlazioaren
esplikazioa. Zeinuak eta adieraziak
hitzarmenez lotuta daudenez gero,
gorputzak eta arimak ere hitzarmenez
lotzen dira; eta hitzarmen honen egilea
ezin daitekeenez gizakia izan, Jainkoa
besterik ez daiteke izan. Beraz,
hizkuntzaren filosofia metafisikaren
eredu bihurtzen zaigu.

Beste autore batzuk ere (Male-
branche, Spinoza, Leibniz...) arazo
bera konpontzen saiatu ziren, azalpen
desberdinak emanez. Baina,
Cordemoy-rena errazenetariko bat izan
daiteke, hizkuntza eredutzat hartuz,
materia-forma bikoiztasuna ulertzeko.

Urte batzuk beranduago, James
Harris-ek hitzen adieraziaren oso
teoria antzekoa azaldu zuen.
Aristoteleri jarraiki ere, hitzak eta
berauen adierazpenak hitzarmenaz
lotuta daudela esaten du; hizkuntza
hitzarmenaren bidez adierazten den
soinu-multzo bat da. Beraz, hitza eta
esaldia unibertsalak dira. Bere obra
nagusian, *Hermes or a philosophical
enquiry concerning language and*

universal grammar (1751), hizkuntza
hitzez osatutako sistema dela esaten
digu; hitz hauen adieraziak (sinbo-
lizatzen dituzten ideiak) dira
hizkuntzaren forma, eta beren soinua,
materia (substantzia).

Beraz, hauxe izango litzateke
linguistika kartesiarraren beste
ezaugarri bat: sakoneko eta azaleko
egiturek ez dute nahitaez berdinak izan
behar.

Lan honetan zehar aipatu dugunez,
hauxe bera diote Port-Royaleko
autoreek: perpausa baten sakoneko
egitura adimenean besterik ez dagoela,
implizitua dela alegia. Horrexegatik,
gramatika orokor eta partikularren
arteko bereizketa ez da ageria.
Esanahia adierazten duen sakoneko
egitura mintzaira guztiek dute
amankomunean, pentsamenduaren
islada soila delako. Sakoneko egitura
azaleko bihurtzen duten arau
transformazionalak aldatu egin
daitezke mintzaira batetik bestera,
hitzarmenezkoak bait dira.

1772an, Johan Gottfried Herder-ek
Prusiako Akademiak hizkuntzaren
jatorriaz antolatutako saria *Abhand-
lung über den Ursprung der Sprache*
izeneko liburuaz irabazi zuen.
Bertan hizkuntza eta pentsamendua
bereiztezinak direla esaten du;
hizkuntza pentsamenduaren tresna,
edukia eta forma da. Denek,
Aristotelerengandik modistengaraino,
lehenengoa pentsamendua zela onartu
zuten, eta horren menpekoea hizkuntza.
Pentsamendua eta hizkuntza inter-
dependenteak direnez, herri baten
literatura eta pentsamendua ulertzeko

bere hizkuntza aztertu egin behar da. Chomsky-ren iritziz, gramatikalari transformazionalistek Herder-engan aurki ditzakete beren teoriaren abiapuntuak. Izan ere, gramatika generatibo transformazionala sakoneko egitura osatzen duten arauak arduratzen da, baita sakoneko eta azaleko egiturei aplikatzen zaizkien interpretazio-arau semantiko eta fonologikoez ere.

Cesar Chesneau Du Marsais-ek ere ikertu egin zuen bikoiztasunaren arazoa. Berak dioenez, hitzak denak batera iristen dira entzule edo irakurlearengana, bere adimenean pentsamendu bat sortarazteko. Pentsamendu hau ulertzeko, lehendabizi, adimenak esaldiaren hitzen arteko erlazioak aurkitu behar ditu, bere sintaxia alegia. Gero esaldiaren esanahia zehaztu behar da, sakoneko egitura honen azalpen osoa eginez, Adimenak erabiltzen duen analisi-metodoa erlazionatuta dauden hitzak lotzea da, modu honetan "ordena signifikatiboa" ezarri. Esaldi efektiboak, berez, "ordena signifikatibo" hau izan dezake, kasu honetan "konstrukzio sinplea" deitua izanik.

Baina, esaldi efektiboak (hau da, jasotakoak) "ordena signifikatiboa" izango ez balu, berrosatu behar izango genuke ordena hori, analisi-prozedimenduren bat erabiliz.

Beraz, Du Marsais-ek ere sakoneko eta azaleko egiturek ez dutela beti berdinak izan behar onartzen du, zenbait kasutan esaldi efektiboaren analisia beharrezkoa gerta daitekeelarik.

Kartesianoaren inguruan biltzen diren zenbait hizkuntzalarik osatutako "linguistika kartesiarraren" (Chomsky-ren definizioa erabiliz) aspektu batzuk azaltzen saiatu gara, Descartes-en sistemarekin izan dezaketen harremana aztertuz. Dena den, kontzeptu honen sortzaileak berak ere azaltzen ditu kontzeptzio honek izan dituen kritika batzuk. Honela dio Chomsky-k: "Generalmente se considera que el error de esta posición ("gramatika filosofikoa"-rena) consiste en su excesivo racionalismo, en su carácter apriorístico y en su falta de consideración por el hecho lingüístico. Pero una crítica más convincente es que la tradición de la gramática filosófica se encuentra demasiado limitada a la simple descripción del hecho, que está insuficientemente "razonada"; es decir, me parece (Chomsky-ri) que las faltas (ó limitaciones) de su obra son exactamente las contrarias de las que los críticos modernos le han atribuido". Laburbilduz, hauek izango lirateke Chomsky-ren kritikak:

- analisiaren "ad hoc" izaera, egokia dirudienean ere.
- egitura linguistikoaren teoria egokia eta zehatza.
- sakoneko eta azaleko egituren arteko bereizketa ez da oso argia.

Etienne Gilson-ek ere "linguistika kartesiarra"-ren kontzeptua kritikatzen du, eta gogorarazten digu Descartes-en filosofiaren ondorio garrantzitsuenetariko batek hizkuntza, ezinezkoa ez bada, ia gertagaitz eta kontraesankor bihurtzen duela. Hizkuntza bezalako gauza ebidentea

azaldu ahal izateko, metafisikari eta teologia okasionalistari ere eutsi behar izatea ez da gomendio ona hizkuntzalarientzat. "Linguistika kartesiarra"-tik gelditzen zaiguna oso nozio arruntak dira, Gilson-en ustez: hizkuntza zeinu zentzudunek osatua da; zeinu hauen eta beren adieraziaren arteko erlaziorik ez dago eta, ondorioz, beren erlazioak hitzarmenaren bidezkoa izan behar du; eta ez dakigu nola lot daitezkeen zeinu fisiko hauek pentsamenduaren nozioekin.

Arima eta gorputzaren arteko lotura, hitza eta esanahiaren arteko-arekin parekatu nahi izatea ere "linguistika kartesiarra"-ren beste akatsa da Gilson-en iritziz. Azkenik, autore honek linguistika filosofikoaren helburua kritikatzan du, gramatika orokorra edo unibertsala eraiki nahi duenean. Izan ere, bere ustez, ideiekin ezin da eragin matematikariek zenbakiekin eragiten duten bezala. "Los filósofos se obstinan en creer que se debe a negligencia, a mala voluntad o a un mal hábito, el hecho de que las palabras no tengan casi más que significaciones confusas; salvo en matemáticas, donde los signos no significan concepto alguno, los que constituyen el lenguaje no presentan nunca un sentido tal que no se pueda decir, de cualquiera de ellos, que significa además otra cosa. (...) Y no es esto un defecto de la palabra: es su

esencia misma, que, al ser un acto creador libre, no podría poner límites a su propia libertad creadora".

Linguistika kartesiarra gramatika espekulatiboa deituriko korrontearen azken unea izango litzateke. Korronte hau Humboldt-enganaino luza liteke, autore honengan biltzen bait dira aipatu ditugun ezaugarri gehienak, baina ez gara gehiago luzatuko.

Orain, berriz, atzera begiratzeko garaia da. Konproba dezakegu zein den pentsamendu kartesiarra gramatikari modistek edota Brocense-k abiatutako korronte linguistiko honen ibilbidean izan duen eragina. Aipatu dugunez, linguistika espekulatiboaren ibilbidean jazotako aztartzeko eraren aldaketa ez zuen Descartes-ek berak bultzatu. Baina, gogora dezagun halaber, garai honetan linguistika, filosofia eta psikologia ez zeudela orain egon daitezkeen bezain bananduta.

XVII. mendean nagusiki gertatzen den analisi linguistikoaren aldaketa hau, enpirismo eta razionalismo filosofikoek eraginda dago zuzenean. Eta, gure iritziz, iraultza filosofiko honen eragile erabakiorrenetariko bat dugu Descartes. Analisi sakonago batek esango liguke zer neurritaraino lepora dakioken Descartes-i hizkuntzaren filosofiaren sortzailertariko bat izatea.

Bibliografía

Orokorra

- 1.- BLOOMFIELD, L. *Lenguaje*. universidad Nacional de San Marcos. Lima, 1964.
- 2.- DUCROT, O.; TODOROV, T; *Diccionario Enciclopédico de las Ciencias del Lenguaje*. Siglo XXI Madril, 1983.
- 3.- GILSON, E; *Lingüística y Filosofía*. Ed. Gredos, Madril 1974.
- 4.- LEROY, M; *Las grandes corrientes de la Lingüística*. Ed. F.C.E. Méxiko, 19.
- 5.- LLEDO, E; *Filosofía y Lenguaje*. Ariel, Bartzelona, 1970.
- 6.- MOUNIN, G; *Historia de la Lingüística*. Ed. Gredos, Madril, 1971.
- 7.- RICKEN, U; *Grammaire et Philosophie au siècle des Lumières*. Publications d l'Université de Lille III, 1978.
- 8.- ROBINS, R.H. *Breve Historia de la Lingüística*. Paraninfo, Madril, 1984.

Iturriak

- 1.- ARISTOTELES; "De interpretatione", "Categoriae". *Obras Completas*. Aguilar, Madril, 1963.
- 2.- ARNAULD, A.; LANCELOT, CL; *Gramática General y Razonada*. Sociedad General de Librería, Madril, 1980.
- 3.- ARNAULD, A.; NICOLE, P; *La Logique, ou L'Art de Penser*. Ed. VRIN, París.
- 4.- DESCARTES, R.; *Meditaciones Metafísicas*. Alfaguara, Madril, 1977.
Discurso del Método. Meditaciones Metafísicas. Principios de Filosofía. Reglas para la dirección del Espíritu. Ed. Poncia, Méxiko.
- 5.- ERFURT, T. *Grammatica speculativa*. G.L. Bursill-hall, Londres, 1972.
- 6.- SANCHEZ DE LAS BROZAS, F; *Minerva*. Cátedra, Madril 1977.

Ikerketak:

- 1.- AARSELF, H; *The History of Linguistics and professor Chomsky*. Language, 46, 1970.
- 2.- CHOMSKY, N; *Lingüística Cartesiana*. Gredos, Madril, 1984.
- 3.- DERRIDA, J; "La langue et le discours de la méthode" en *Recherches sur la philosophie et le langage*, 3, 1983.
- 4.- DONZEE, R; *La Gramática General y Razonada Port-Royal*. Eudeba, Buenos Aires, 1974.
- 5.- FOUCAULT, M; *Las palabras y las cosas*. Siglo XXI, Mexiko, 1974.
- 6.- ROSIER, I; *La Grammaire spéculative des modistes*, Preses Universitaires de Like, 1978.